

Berrigara

BERGARA • ELGETA • ANTZUOLA / Egubakoitza / 2003ko azaroaren 21a / 562. zenbakia

kranpoiak

betaurrekoak

txamarra

botak


pioleta

BIGARREN ESKUKO MATERIALA

AZOKA TXIKIA DATORREN ASTEAN POL-POLEN

AMODIOZKO GUTUNAK: LEHIAKETAKO OINARRIAK KALEAN/12 • FUTBOLA: JON ANDUEZARI ELKARRIZKETA/10

AZALA: MIREN ALMARAZ



ILUNTZEAN

Joan Mari Irigoien solaskide



Goiena Telebista

**Ikusiko
duzu!**

ILUNTZEAN
Ile apaindegia: Gorka
Jantziak: Udalaiz

Eguenean, azaroaren 27an
21:15ean

Aurkezlea:
Aintzane Gardoki


ATREBENTZIAEZPADA/ Musiko izan nahi dozu haundi egittian?



IÑIGO IPARRAGIRRE
10 urte



JULEN MARQUEZ
9 urte



SERGIO GONZALEZ
13 urte



MAITE ELORZA
9 urte



ANE MORILLAS
11 urte



IRAIA OLIVAS
10 urte

Solfeoko laugarren maillan nabil. Eta klarinetia jotzen dot; hirugarrenian nago. Ez dot sekula pentsatu nagusitzen naizenian musikua izan nahi doten. Kirola be asko gustatzen jat.

Solfeoko bigarren maillan nago. Eta tronpia jotzen dot; lehenengo maillan nago. Ez dakit musiko izan nahiko neuken. Futbola be asko gustatzen jat, eta igoal arotz be izan nahiko neuke.


Solfeua bukatu dot. Eta akordeoia jotzen dot; seigarren maillan nabil. Nere-tako musikia zaletasuna da, ez dot uste nagusitzen naizenian honetara dedikauko naizenik.

Solfeoko hirugarren maillan nabil. Eta klarinetia jotzen dot. Asko gustatzen jat, gaiñera. Ez daukat garbi, baiña igoal nahiko neuke klarinetista izan nagusitzian.

Laister solfeua bukatuko dot. Eta biolontxelua jotzen dot. Lagun batek be biolontxelua jotzen dau. Eta nagusitzian musiko izan nahiko neuke, eta orkestra baten jo.

Solfeoko laugarren maillan nabil. Eta oboea eta pianua jotzen dot; bixetan hirugarren maillan nago. Eta nagusitzian musiko izan nahiko neuke, baiña ez daukat oso garbi.

TXALOAKETATXISTUAK



TXISTUAK ADAR-JOTZEA GOIENKARIAren azkeneko zenbakian Beasain-Durango autobiarren albistea irakurri eta gero, haserre deitu du irakurle batek. Albistean zioen bezala, ekialdeko sailhesbidea bukatu eta Zaldumenditik Epelera arteko zatia ordaindu egin behar da; izan ere, autobiak eta Eibar-Gasteiz autobideak bat egingo dute 15 kilometro horietan. Irakurleari adar-jotzea iruditzen zaio. /M.B.

ETABARRUAN...

ASTEO BERRIAK / 5	KIROLAK / 11	KULTURA / 12
Zilarrezko Q-a Lazpiurrendako	Bergara-Anaitasuna	'Transeuropa 2001'
Lazpiur enpresari Zilarrezko Q-a eman diote kalitatearen arloan egindako lanarengatik.	Preferente mailako futbol taldeak beharrezkoa du zapatuan Anaitasunari irabaztea.	Transeuropa 2001 zeharkaldiaren gaineko diapositiba emanaldia egingo du Ina Rufok egunean.

ASTEKODATUA

O

ASTE HONETAKO TEMPERATURA HOTZENA

Termometroak 0 gradu erakutsi du aste honetan; astelehen eta martitzen gauean, hain justu ere. Hala eta guztiz ere, temperatura baxua izan den arren, ezin gara eguraldiaz kexatu.

BESTEKEGASANA

Kasu askotan justifikatuta dago hainbat egitura federatiboren profesionalizazioa. Argi dago ezin dela kirol elkarten egitura eta jende guztia profesionalizatu. Erroka da profesionalaren eta boluntarioaren figurak hartu eta uztartzea. Nire ustez hortik doa kontu honen guztiaren irtenbidea. Profesionalizatu behar direnak dira profesionalizazioa justifikatuta dauden kasuak eta horrekin batera, boluntarioak kontuan hartu behar dira. Gipuzkoako kirol sisteman zerbait argi baldin badago, hori da boluntarioak oso beharrezkoak direla kirolarentzat.

IÑAKI UGARTEBURU / Gipuzkoako Foru Aldundiko Kirol Saileko zuzendaria 'Deia'/03-11-14

BERAIEKDIÑOE/ Lander Juaristi



Gaizto-gaiztoak

Pasa ziren San Martin jaietan, herriko zortzi taldek Txosna jarri genuen Xabier Maria Munibe plazan. Bai, asko gustatzen zaigu gure jai egunak sakrifkatu eta txosnan lan egitea, edariak, edalontziak eskatu, egitarau txiki bat antolatu, txandak bete...

Txosna hura "pirata" zen! Ez genuen Udalaren baimenik txiringitoa jartzeko, eta jarri egin genuen, gaizto-gaiztoak gara!

Eta gaiztoak garelako isuna jarri nahi digute; ez du axolarik hilabete eta erdi lehenago baimena eskatu izanak, edo txosnaren kokaleku ezberdinak aztertze bilerak eskatzeak, ez eta egindako proposamen guztiek ezezkoa erantzuntzat jasotzeak. Tokirik ez omen zegoen Bergaran txosna bat jartzeko.

Barkatu baina ez dut sinisten! Odoloste pintxoak saltzeko erabilitakoa erabil genezakeen gauean (hori zen proposatutako aukeretako bat)

edo eta Munibe plaza ferriako postu ezberdinekin girotu! Baina ez omen genuen "pegatzen".

Uda garaiko nahaste eta denbora faltaren ondorioz, sortutako egoera aldrebesa dela sinetsi nahi dut, eta ez Udal gobernuaren borondate falta.

Nahikoa zaila da gaur egun bakoitzaren interesak albora utzi eta kolektibo, irratiko edo euskara talde baten alde lan egiteko prest dagoen jendea aurkitzea, Udalaren aldetik ere ostikoak jasotzeko. Hitz eginez irtenbideak aurkituko ditugula espero dut, baina

horrela ez bada gaiztoak izaten jarraituko dugu eta txosnak jartzen, eta kontzertuak antolatzen, eta antzerkiak... Isuna Txapa irratiko kide bati sartu nahi diote! Eta ez dira 30 euro.

Oharra: Sugandila batek esan dit, (txoritxo, Martin Ugaldel parkean zegoen kantari guardia zibila sartu zenean) herriko kolektibo eta talde ezberdinek mugimendu berri bati hasiera eman nahi diotela.

"Isuna jarri nahi digute; ez du axolarik hilabete eta erdi lehenago baimena eskatu izana"

Berrigara

Irizar Jauregia • Barrenkalea 33
20570 BERGARA
Tel.: 943 76 03 97
Faxa: 943 76 29 77
Posta-e: berrigara@goiena.com

ZUZENDARIA
Edu Mendibil
ERREDAKZIOA
Monika Belastegi,
Aintzane Irizar
MAKETAZIOA
Miren Almaraz

PUBLIZITATEA
Mireia Larrañaga
KOLABORATZAILEAK
Luis Mari Agirre
Juan Martin Elexpuru
Miguel Angel
Elkorobereizbar

LEGE-GORDAILUA
SS-50/91
ISSN
1130-6599
TIRADA
5.900 ale

Goiena
Komunikazio Zehatzak

BERRIGARA / KONTUOLA / GOIBEKOKALE • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jaurlaritzako
Kultura saila



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Bergarako
Udala



Antzuolako
Udala



Elgetako
Udala

GUARDIAKO FARMAZIAK

EGUBAKOITZA, 21
CAMACHO, Oxirondo 4..... 943 76 11 74

ZAPATUA, 22
ZABALA, Barrenkalea, 25..... 943 76 16 87

DOMEKA, 23
ZABALA, Barrenkalea 25..... 943 76 16 87

ASTELEHENA, 24
GUALLAR, San Antonio 5..... 943 76 11 05

MARTITZENA, 25
ESTELLA, Matxiategi 5..... 943 76 19 63

EGUAZTENA, 26
MOZOS, Iparragirre 2..... 943 76 12 15

EGUENA, 27
CAMACHO, Oxirondo 4..... 943 76 11 74

TELEFONO JAKINGARRIAK

OSASUNA / LARRIALDIK

Ambulatorioa (txanda)..... 943 76 24 40

Bergarako Udaltzaingoa..... 943 77 91 06

Antzuolako Udaltzaingoa..... 943 76 62 46

Ertzaintza..... 943 76 53 40

Osasun etxea..... 943 76 24 40

Asepeyo..... 943 76 16 43

Pakea..... 943 76 13 49

Angiozarko medikua..... 943 78 90 27

Antzuolako medikua..... 943 76 62 23

Odol emalleak..... 943 76 16 24

Alkoholiko Anonimoak..... 943 76 51 06

GARRAIOAK

Taxiak..... 943 76 19 50

UDALA

Bergarako Udaletxea..... 943 77 91 00

Antzuolako Udaletxea..... 943 76 62 46

Udal Artxiboa..... 943 77 91 32

Igerilekuak..... 943 76 20 51

Kultura etxea..... 943 77 91 58

Liburutegia..... 943 77 91 62

Kirodegia..... 943 76 56 41

Mizpirualde egoitza..... 943 76 13 68

BESTELAKOAK

Epaitegia..... 943 76 14 92

Erregistroa..... 943 76 13 15

Jardun..... 943 76 36 61

Idolaz..... 943 76 65 08

Erretiratuen etxea, Bergara..... 943 76 21 40

Antzuolako erretiratuen elk..... 943 76 62 71

Postetxea..... 943 76 26 85

Bedelkar..... 943 76 04 68

Akulu AEK..... 943 76 05 18

Udal Euskaltegia..... 943 76 44 53

Bergarako notariotza..... 943 76 10 73

MEZAK

San Pedro	Labegarieta
Domekak: 09:30, 12:30.	Domekak: 11:00.
Zapatuak eta lanegunak: 19:00.	San Lorentzo
Sierbak	Zapatuak: 20:00.
Lanegunak: 19:15.	Angiozar
Zapatuak: 19:00.	Domekak: 11:30.
Moja Zaharrak	Mizpirualde
Lanegunak: 09:00.	Lanegunak: 11:45.
Zapatuak: 11:00.	Zapatuak: 17:30.
Antzuola	
Domekak: 09:00, 11:30.	
Zapatuak eta lanegunak: 19:30.	
Uzarraga	
Domekak: 10:00.	
Elgeta	
Lanegunak: 09:00.	
Zapatuak: 19:30.	
Elorregi	
Domekak: 10:30.	Domekak: 12:00.

URTE-MEZAK

Santa Marina
Hileko bigarren domekan, 10:30ean eta 13:00etan.

San Pedro
Hileko hirugarren domekan, 09:30ean eta 12:30ean.

OHARRAK

1938AN JAIOTAKOEN BAZKARIA
1938an jaiotako bazkaria azaroaren 22an Pertxa elkartean.

1946AN JAIOTAKOEN AFARIA
1946an jaiotako afaria azaroaren 22an Tartufon. Izenematea: 943 76 35 51.

1945EAN JAIOTAKOEN AFARIA
1945ean jaiotako afaria azaroaren 22an Azpeitxi jatetxean. Izenematea (30 euro) Kutxan, San Martin plazako bulegoan.

1981EKOEN BAZKARIA
1981ean jaiotako bazkaria azaroaren 22an. Izenematea (30 euro) Euskadiko Kutxan (3035 0009 1300 9006 9776).

1934AN JAIOTAKOEN BAZKARIA
1934koen bazkaria azaroaren 29an Torrekoa jatetxean. Izenematea Torrekoa jatetxean (aurrez 12 euro).

1944AN JAIOTAKOEN AFARIA
1944koen afaria azaroaren 29an Azpeitxi jatetxean, 21:00etan. Izenematea: 943 76 23 70 (Sanchez) edo 943 76 13 61 (Mari Karmen Garitano).

1947AN JAIOTAKOEN AFARIA
1947koen afaria azaroaren 29an Tartufon. Izenematea (42 euro) Euskadiko Kutxan (0091 0990 19) hilaren 22ra arte.

1953AN JAIOTAKOEN AFARIA
1953koen afaria azaroaren 29an Zabalan. Izenematea Zabalan, Kiñun edo Irizar kaleko ONCEko postuan.

1957AN JAIOTAKOEN AFARIA
1957koen afaria azaroaren 29an Zumelagan. Frontoian elkartuko dira, 21:00etan. Izenematea Intxorta tabernan (aurrez 10 euro).

1933AN JAIOTAKOEN BAZKARIA
1933koen bazkaria azaroaren 30ean Azpeitxi jatetxean. Izenematea (aurrez 10 euro) Azpeitxin edo Intxorta tabernan.

URBANOENORDUTEGIA


San Lorentzo / San Juandik irteerak
07:00, 07:40, 08:50, 09:40, 10:20, 11:00, 11:40, 12:20, 13:00, 13:30, 14:20, 16:00, 16:40, 17:20, 18:10, 19:00, 19:40, 20:20 eta 21:00.
GERALEKUAK: San Juan (Torunsa aurrean), Amillaga (Manso aurrean), San Lorentzo (Soralue aurrean), Matxiategi (Mizpildi okindegia), Zurra-dero, San Antonio (Zumelaga), Martoko gainean, Zubiaurre, Ozaeta (Brunet aurrean), Labegarieta (Ekonomatoan) eta Zabala jatetxea.

Labegarieta / Olabarrenetik irteerak
07:20, 07:35, 08:30 (Olatik), 09:20, 10:00, 10:40, 11:20, 12:00, 13:05, 13:20, 13:50 (Olatik), 14:30 (Olatik), 16:20, 17:00 (Olatik), 17:25, 17:40, 18:30, 19:20, 20:00 eta 20:40.
GERALEKUAK: Labegarieta, Ozaeta, Zubiaurre, Martoko, San Antonio, Espolola (Mintegi), San Pedro, Arruriaga (Konde), Zubieta, Muger-tza, San Lorentzo, Amillaga eta San Juan.

ORAINDELA 10URTEBERRIGARAN

Gaztetxearen eta Apezpikutzaren arteko bilera

Gaztetxeko eta Apezpikutzako ordezkariak bilera egin zuten Donostian 1993ko azaroaren 25ean. Gallastegi alkateak bitartekari lanak egin zituen. Gaztetxekoek Komenio kaleko lokalean jarraitu nahi zuten eta Setien gotzainak lokala berreskuratu nahi zutela esan zien gazteei.



BERTAKO BERBAK / Juan Martin Elexpuru

“Atselekua”



Atseden-lekua.

—Urrutitik sendorrak bizkarka ekarri behar ziren etxeetan, bide erdian atselekua egon ohi zen. Bi esola zutik eta gainean ohol bat, karga han utzi eta gero berriz erraz bizkarreratzeko.

GORKA ORTEGA

ASTEKOFILMAK

‘SOÑADORES’

ZUZENDARIA: BERNARDO BERTOLUCCI. AKTO-REAK: MICHAEL PITT, EVA GREEN, LOUIS GARREL.

HARIA. Isabelle eta Theo bikiak bakarrik daude gurasoen etxean, eta ikasle estatubatuar bat gonbidatuko dute. 1968ko maiatzean, Parisen, girotu du azken filma Bernardo Bertolucci zuzendari ospetsuak, eta kritikarien harre-
ra ona jaso du.

TOKIA ETA ORDUA. Egubakoitzean, 22:30ean; domekan, 17:00etan, 19:30ean eta 22:15ean.

PUNTAUZIOA: ●●●●●

‘LA FLAQUEZA DEL BOLCHEVIQUE’

ZUZENDARIA: MANUEL MARTIN CUENCA. AKTOREAK: LUIS TOSAR, MAR REGUERAS, MARIA VALVERDE.

HARIA. Lorenzo Silvaren eleberrian oinarritutako filma. Pablok banku batean egiten du lan eta guztiz nazkatuta dago. Auto istripu baten ondorioz, bizitza aldaturiko dion neska ezagutuko du...

TOKIA ETA ORDUA. Zapatuan 17:00etan, 19:30ean eta 22:30ean; astelehenean, 19:30ean.

PUNTAUZIOA: ●●●●●

HAUGIROA!

MINIMOA Martitzena, **0 °C**

MAXIMOA Egubakoitza, 14 **16 °C**

ASTEKO EURIA (l/m²) **41,7 L**

	Max.	Min.	Euria
Eguaztena, 12	16 °C	9 °C	1,1 l/m ²
Eguena, 13	16 °C	9 °C	0,5 l/m ²
Egubakoitza, 14	16 °C	9 °C	- l/m ²
Zapatua, 15	15 °C	7 °C	0,6 l/m ²
Domeka, 16	12 °C	10 °C	39,5 l/m ²
Astelehena, 17	13 °C	6 °C	- l/m ²
Martitzena, 18	12 °C	0 °C	- l/m ²

San Juan auzoan jasotako datuak

‘TAXI PARA TRES’

ZUZENDARIA: ORLANDO LÜBBERT. AKTO-REAK: IVONNE BECERRA, JUAN RODRIGUEZ, FERNANDO GOMEZ-ROVIRA.

HARIA. Txileko film honek Urrezko Maskorra irabazi zuen 2001eko Donostiako Zinemaldian. Ulises izeneko taxi-gidari baten gorabeherak kontatzen zaizkigu komedia beltz honetan: soldata estra ateratzeko gaizkile talde batekin kolaboratzeko prest azalduko da Ulises...

TOKIA ETA ORDUA. Zinekluba. Egue-
nean, hilaren 27an, 20:00etan.

PUNTAUZIOA: ●●●●●

OGIZUN
koop. elk.
okindegia

Ibargarai 44-46 BERGARA 943 76 45 53
Zubillaga 10 OÑATI 943 78 24 13

ANTIA
HARATEGIA URDAITEGIA

Txahal, idi, txerri, bildots, untxi eta baserriko oilaskoak.

Matxiategi 8. BERGARA
Tel. 943 76 15 09

HIRIGINTZA/ Astelehenean onartu zuen udalbatzak proiektua, baita lanak lehiaketara ateratzeko baldintzak ere

Kataibia kalea konponduko dute Oxirondo plaza urbanizatzeko lanen barruan

MONIKA BELASTEGI

Kataibia kalea konpontzeko proiektua onartu zuen udalbatzak astelehenean ezohiko osoko bilkuran. Proiektua Andoni Sistiagak egin du eta Oxirondo plazako urbanizazio lanen barruan dago. Kataibia-kaleko lanak egiteko baldintzak ere onartu zituen udalbatzak.

Kataibia kalea hartzen du konpuntu proiektuak, errekaaren kontrako dagoena, hain justu. Helburua da kalearen zorua konpontzea, eta erreka lubeta egitea. Lanok, Oxirondo plazaren urbanizazio lanen jarraipena dira. Oxirondo plaza egin zutenean ere lubeta eraiki zuten -Santa Marina eliza paretik hasita Kataibia kalea hasten den arte-, errekaaren kontra dagoela kontuan hartuta. Orain, Kataibia kaleari dagokion tartean jarraitu egingo du lubetak.

Lur-lubeta egingo dute, 2,5 metroko altueraduna, eta haren gainean, hormigoizko hormatxoak egingo dute.

Kataibia kaleko zorua konpontzeko lanei dagokienez, 32 metro inguruko luzera du, eta hori guztia egokitu egingo dute.

Lanon aurrekontua, 82.900 euro ingurukoa da, eta proiektuak EAJ-EA, Aralar, PSE-EE, PP eta EEn oniritzia jaso zuen osoko bilkuran.

ZURRADERO ZUBIRAINOKO PASABIDERIK EZ

Kataibia kalea urbanizatzeko lanen barruan kale hori Zurraderoko zubiarekin lotzeko asmoa duen Udalak hasiera batean. Kataibia kalea zubiarekin lotzeko kalearen amaieran dagoen eraikintxo bat bota beharra zego-



Oxirondo plazaren kontra egin zuten lubetari eta harrizko hormari jarraipena egingo diote Kataibiarantz.

MONIKA BELASTEGI

Lur-lubeta egingo dute errekaaren kontra eta etxeen aurreko bidea konponduko dute

en. Hala eta guztiz ere, bertan behera laga du Udalak asmo hori, oraingoz.

Horrez guztiaz gain, obrak nola egin arautuko dituzten bal-

Oraingoz albora laga dute Kataibia kalea Zurradero zubiarekin lotzeko asmoa

dintzak ere onartu zituen udalbatzak asteleheneko osoko bilkuran, aho batez. Bestalde, lanok esleitzeko lehiaketara aterako dituzte.

Irala eta Herri Lagunak kaleetara edateko ura eramateko sarea berritu egingo dute

Kataibiako bizilagunak behin baino gehiagotan kexatu dira udaltxean kalearen egoeraz eta bilkuran hartutako erabakiarekin arazoari amaiera emango diote.

IRALA ETA HERRI LAGUNAK KALEETAN UR SARE BERRIA

Beste proiektu bat ere onartu zuen udalbatzak astelehenean: Domingo Irala eta Herri Lagunak kaleetara edateko ura eramateko sarea berritzeko proiektua, hain justu ere. Proiektu hori ere aho batez onartu zuten alderi guztiek. Lanek 151.000 euro inguruko aurrekontua izango dute.

Proiektuarekin batera, lanak nola egin arautzen dituen baldintzak ere onartu zituzten, eta esleitzeko lehiaketara aterako dituzte.

Azaroaren 25a, baserriko plastikoa ateratzeko eguna

Baserri inguruetan sortzen den plastikoa ateratzeko hurrengo eguna azaroaren 25a izango da, datorren martitzenean, hain justu. Zerbitzuaren helburua da baserriek sor dezaketen plastikoa jasotzea.

Debagoieneko Mendi Nekazaritza Elkartearen zerbitzua da, eta helburua da baserriek sor dezaketen plastikoa jasotzea.

Plastikoak ateratzeko eguna datorren martitzena, azaroaren

25a izango da. Dena den, ezin da edozein plastiko laga, honako hauek baizik: siloa estaltzeko erabiltzen den plastiko beltza, belar boletan erabiltzen den plastiko beltza, negutegietan eta ortuan lurra estaltzeko erabiltzen den plastiko beltza eta negutegiko plastiko zuria. Bestalde, plastikozko sokak ez dituzte jasoko; soilik lokarri gisa erabilitakoak.

PLASTIKOA TOKI JAKIN BATZUETAN LAGA BEHAR DA

Plastikoa arratsaldean atera beharko da, hurrengo egunean pasatuko direlako jasotzera. Gai-

nera, Debagoieneko Mendi Nekazaritza Elkarteak jakitera eman duenez, toki jakin batzuetan laga beharko da plastikoa. Honako hauek, hain zuzen ere: Ugarrixa auzoan, granja parean; Elosu auzoan, Santutxun; Murinondo auzoan, trenbide ondoan eta San Juan auzoan, eliza aurreko plazan. Esandako tokietatik kanpora lagata daudenak ez dituzte jasoko.

Hilean behin ematen du zerbitzu hori Debagoieneko Mendi Nekazaritza elkarteak eta hurrengo bilketa eguna abenduaren 23a izango da.



Negutegietakoa da, esaterako, zerbitzuak jasoko duen plastikotako bat.

MONIKA BELASTEGI



MONIKA BELASTEGI

Sarrerako atea kendu, zaharberitu eta erakusketa aretoan jarriko dute erakusketarako elementu egonkor gisa.

HIRIGINTZA/ Astelehenean onartu zituen udalbatzak proiektua eta baldintzak

Arostegi erakusketa areto bihurtzeko baldintzak kalean

MONIKA BELASTEGI

Asteleheneko bilkuran onartu egin zuen udalbatzak Arostegi etxeko behe solairua erakusketa areto bihurtzeko proiektua. Horrekin batera lanak egiteko baldintzak ere onartu zituzten eta lehiaketara atera dituzte. Datorren urterako martxan egongo da.

Barrenkale 7an dagoen Arostegi etxeko behe solairuan egokituko dute erakusketa areto hori eta proiektua Iñaki Berasategi, Eli-

sabeth Ena eta Xabier Berasategi arkitektoek egin dute.

Behe solairuak 179 metro koardro inguru ditu, eta horietatik 155 inguru erakusketa aretoari dagozkie. Horrez gain, sotoa ere badu aretoak. Han, bi biltegi, komunak eta aire girotuaren gela egongo dira.

Erakusketa aretoari dagozkionez, areto zabala izango da, itxitura edo banaketarik gabekoa. Hala ere, beharrezkoa balitz erakusketak hala eskatzen duelako, manpara edo pareta mugikorrek egin ahal izango da bana-

keta. Behe solairutik sotora jais-teko eskailerak eta igogailua egongo dira.

SARRERAKO ATEA KENDU EGINGO DUTE

Horrez guztiaz gain, sarrerako atea duen interes kontuan izanda, eta hondatu ez dadin, kendu eta erakusketa aretoan sartuko dute. Horren aurretik, zaharberitu egingo dute eta horren ondoren sartuko dute aretoan, erakusketarako elementu egonkor gisa. Ate horren orde jarriko dutena altzairuz eta egurrez egindakoa izango da.

Ikasleen eskubideak aldarrikatzen

Batxilergoko eta Lehen Hezkuntzako ikasleek Ikasle Egunan ospatu zuten astelehenean Ikale Abertzaleak taldeak antolatuta. 11:30ean, manifestazio zaratzua egin zuten. Ukatuta dituzten ikasle eskubideen borrokan jarraituko dutela azaldu zuten, eta gizar-teak eskubide horiek onartu arte jarraituko dutela gehitu zuten. Manifestazioaren ondoren, euskal curriculum-aren gaineko hitzaldia izan zuten gaztetxean; baita jolasak, sariak eta hainbat ezusteko ere.



Elkarrik sinadura bilketa egingo du bihar, zapatua

MONIKA BELASTEGI

Datorren urteko martxotik aurrera Bake Konferentzia bultzatu nahi du Elkarrik. Bide horretan, hauteskunde orokorrak heldu bitartean gizarte eta prestakuntza faseari ekin diote. Fase hori garatzeko, Eskaera Eskubidea erabiltzea erabaki dute. Eskubide hori erabiliz, herritarrek eta erakundeek instituzioetan proposamenak egin ditzakete, eta instituzioek proposamenok tramitatu eta erantzun egin behar dituzte. Datozen sei hilabeteetan, manifestu batekin batera 100.000

sinadura batzen saiatuko dira, legezko bide hori erabiltzeko eta Eusko Legebiltzarrean eta Nafarroako Parlamentuan elkarriketa foro zabal baterako proposamena aurkezteko.

Bergaran 700 lagun sinadura eta bakoitzeko bost euro inguruko laguntza behar dituzte ekimen hori aurrera eramateko. Horretarako, Bergarako Elkarrik tailerrak sinadura bilketa egingo du bihar, zapatua: 08:00etatik 11:00etara azokako sarreran egongo dira eta 11:00etatik 13:00etara, berriz, San Martin plazan egongo dira.

LABUR

Aralar alderdiko Iñigo Iñurrategik karguaren zina egin zuen asteleheneko ezohiko bilkuran

Astelehenean izandakoo osoko bilkuran zinegotzi kargua hartu zuen Iñigo Iñurrategi Aralar alderdiko kideak.

Ainhoa Larrañagak lagatoko tokia hartu du Iñurrategik: izan ere, lan kontuak direla eta zinegotzi izateari eta bestelako karguei laga egin zien Larrañagak aurreko hilean.

Horrekin batera, Deba-goieneko Udal Elkartearen Gobernu batzordeko kide ere bazen Ainhoa Larrañaga, eta, hala, astelehenean izandako bilkuran, kargu hori ere hartu zuen Iñigo Iñurrategik.



Iñigo Iñurrategi.

Gotzon Garatek hitzaldia egingo du abenduaren 4an kultura etxean

Gotzon Garate Elgoibarko idazle eta hizkuntzalariak hitzaldia egingo du abenduaren 4an, eguena, 19:00etan, kultura etxean. Garatek honako gaia izango du hizpide: *Euskaraz egiten diren hutsak egunotan eta esamoldeak.*

Gotzon Garate, besteak beste, Filosofian doktorea da, Teologian eta Filologia Erromanikoan lizentziaduna eta Euskal Literaturaren katedraduna. Horrez gain, hainbat liburu idatzi ditu eta 1978an Euskal Filologia karrera sortu zuen Deustuko Unibertsitatean.

Jardun elkarteak Txapligu taldeak irratsaioa egingo du zapatuan Txapa Irratian

Asteburuetan egiten dituzten ekitaldien artean, irratsaioa egingo du Txapligu taldeak bihar, zapatua, 17:00etan, Txapa Irratian. Txapligu taldea 9 eta 11 urte bitarteko neska-mutikoei osatzen dute, eta asteburuko ekintza ezberdinak egiten dituzte, 16:00etatik 20:00etara Arrizuraga jauregian. Bestetik, Txiskrilabi taldeari dagokionez -12 eta 16 urte bitarteko gaztetxoak-, bihar, zapatua, detektibe jolasa egingo dute 12 eta 14 urte arteko neska-mutikoei, 16:00etatik 18:00etara. 14 eta 16 urte artekoak, berriz, Udal Euskaltegian elkartuko dira, 18:00etatik 20:00etara.

Batxilergoko titulua lortu nahi dutenendako matrikula zabalik Ipintza institutuan

Batxilergoko ikasgaiak gaintu gabe dituztenek titulazioa lortzeko aukera dute Ipintza institutuan, nahiz eta matrikulatuta ez egon.

Interesa dutenek libre moduan egin ditzakete ikasgaiok eta horretarako izena eman beharko dute Ipintza institutuan. Dagoeneko irekita dago matrikula epea, eta datorren egunean, azaroaren 27an, bukatuko da.



ARTXIBOA

Lazpiur enpresak automobilgintza sektorean egiten du lan nagusiki. Gaur egun 90 langile dira Murinondoko lantegian.

INDUSTRIA/ Abenduaren 11n Donostian egingo den ekitaldian emango diote saria

Lazpiur enpresak zilarrezko Q-a jaso du kalitate alorrean

INDUSTRIA

Lazpiur enpresak zilarrezko Q-a jaso berri du European Foundation for Quality Management (EFQM) erakundearen eskutik. Apatutako ziurtagiriak kalitate alorrean egindako lana nabarmentzen du. Abenduaren 11n Donostiako Kurasaalen egingo den ekitaldian emango diote saria Lazpiur enpresari.

Construcciones Mecanizadas Jose Lazpiur S.A. 1964an sortu eta gaur egun 90 langile dira

bertan lanean. Lazpiurrek, nagusiki, automobilgintza sektorean egiten du lan, sarrailagintza, linea zuriko produktuak edota kosmetikarako lanak ere egiten dituen arren.

Mikel Garai marketin eta salmenta arduradunaren arabera, zilarrezko Q-a enpresarendako errekonozimendua da: "Produktzio zein gestio mailan garrantzi handia ematen diogu kalitateari eta sari honek bide horretatik jarraitzeko indarra ematen digu".

Lazpiur enpresa nazioarteko merkatuan ere lanean dihardu,

Estatu Batuetan eta Alemanian nagusiki: "Mundu zabalean lehiatzeko ateak irekiko dizkigu ziurtagiri honek" diosku Garaik.

SARIA ABENDUAREN 11N JASOKO DUTE

Miguel Lazpiur enpresako gerenteak abenduaren 11n jasoko du zilarrezko Q-a, Donostiako Kurasaalen egingo den ekitaldian. Gerentearekin hainbat langile izango dira Donostian, tartean Miguel Angel Agirrezabal eta Asier Arrieta, azken hiru urteotan zilarrezko Q-a jasotzeko prozesua zuzendu dutenak.

Emakumeek jasaten dituzten tratu txarrak hizpide

M.B.

Emakumearen aurkako biolentzia ezabatzeko nazioarteko eguna izango da datorren astean, hilaren 25ean, hain justu. Hori horrela, gaiaren gaineko hitzaldiak egongo dira astelehenean eta martitzenean.

Datorren martitzenean, hilaren 25ean, Emakumearen aurkako biolentzia ezabatzeko nazioarteko eguna izango da. Hori horrela, gai horren gaineko bi hitzaldi egongo dira astean barrena. Bata, datorren martitzenean, hilaren 25ean izango da, 18:30ean, Migel Altuna institutuan. Hitzal-

dia Nati Gutierrez psikologoak egingo du eta jorratuko duen gaia Tratu txarrak jasandako emakumea da. Hitzaldi hori sortu berri den BEKE emakume taldeak antolatu du.

Beste hitzaldia datorren eguaztenean, hilaren 26an, izango da, 19:00etan, kultura etxean. Amnesty Internationalek egunotan kultura etxean argazki erakusketa bat du. Erakusketaren gaia *Giza eskubideak, emakumeen eskubidea* da: mundu guztiko emakumeak ikus daitezke eta hitzaldian argazkiotako egoerak azaltzeaz gain, erakundeak sortu nahi duen Emakume sailaren berri emango dute.



AI.

Irudian Afganistango emakumeen manifestazioa.

LABUR

Kolonbiaren gaineko hitzaldia egongo da eguenean, Komite Internazionalisten eskutik

Kultura etxean izango da, 19:30ean. Ivan Forero Robayo kolonbiarrak emango du hitzaldia, eta landuko duen gaia *Kolonbia gaur egun* izango da. Forero *Justicia y paz* komisioko kidea da eta *Nunca más-Colombia* proiektuaren koordinatzailea. Proiektu horren helburua da Kolonbian azkeneko 30 urteetan gertatu direnak ikeritzea, zigorgabekeriaren aurka borrokatzeko.

Piraguistak errekarra jaisteko arrapala egingo du Udalak

INDUSTRIA

Beti-Busti piraguismo taldeari erraztasunak emateko asmoz, errekarra jaisteko arrapala egingo dute Labegarietako kiroldegiaren ondoan. Lanek 7.600 euro inguruko aurrekontua dute.

Beti-Busti taldeko kideei entrentatzeko orduan Deba ibaira jaisteko erraztasunak emateko asmoz, arrapala eraikiko du Udalak Labegarietako kiroldegiaren inguruan. Halaxe onartu zuen udalbatzak, aho batez astelehe-

neko osoko bilkuran, eta lanen aurrekontua 7.600 euro ingurukoa da.

HAMAR URTETIK GORA PIRAGUAREKIN URETAN

Hamar urtetik gora darama Beti-Busti piraguismo taldeak martxan. Emakumezkoak eta gizonetzkoak daude taldean, 30 inguru, eta batik bat errekan entrenatzen dira urte osoan. Horregatik, hain justu ere, erabaki du Udalak errekarra jaisteko erraztasunak emateko Udalak arrapala egitea. Hala eta guztiz ere, ez dira errekarra bakarrik

mugatzen; itsasora ere egiten dituzte irteerak udan, gehien bat errekan jarduten duten arren.

Parte hartu duten hainbat lehiaketetan puntuaketa ona lortu izan dute. Aurten, esate baterako, Espainiako Ur Bizietako Txapelketan taldekako bosgarren postua lortu zuten Beti-Busti taldeko kideek, ekainean, Seo D'Urgellen, Lleidan.

Era berean, Beti-Bustik adin guztiendako piraguismo ikastaroak antolatzen ditu. Interesatuak 667 60 09 47 (Iñaki) telefono zenbakira dei dezakete argibide eske.



BETI-BUSTI

Beti-Bustikoak errekan entrenatzen dira urte osoan, Labegarieta inguruan.



UDAL MUSIKA BANDA ARRATE IRRATIAN

Arrate Irratikoek grabatu egin zuten aurreko domekan, hilaren 16an, Udal Musika Bandak Santa Zezilia ospatzeko udal pilotalekuan egin zuen kontzertua. Hori horrela, etzi, domeka, bandaren emanaldi hori Arrate irratian entzuteko aukera izango da, eguerdiko 12:00etan. Jende ugari batu zen kontzertuan, eta bandak bost obra egin zituen; tartean, Alfredo Gonzalez Chirlaqueren *Añoranza* izenburuko pasodoblea. Obra hori, gainera, domekako emanaldian estreinatu zuten bandako kideek. Ikusleek txalo zaparrada luzea eskaini zioten bandari emanaldiaren amaieran.



ARANZADIKOAK, NAFARREN ALDE

Aranzadi Ikastolako DBHko eta Batxilergoko ikasleen Euskara batzordeak bultzatutako kanpainan 2.303,41 euro batu ditu Irunberriko Arangoiti ikastolaren alde. Jasotako 10 euro bakoitzeko adreilu bat jarri dute ikastola berriarentzat eta argazkian ikusten den eraikina egitea lortu dute. Ea Aranzadi ikastolakoek panelean marraztutakoa Nafarroa aldean gauzatzen den...



SAN MARTIN EGUNA AZKUNETAN

Tourseko San Martinen eguna ospatzen da azaroaren 11n, eta tradizioz txerri hilketa egiteko eguna izan da hori. Angiozarren, Azkunetan, badago San Martin eguna ospatzeko ohitura; hala, Azkuneta ingurukoek erromeria egin zuten joan zen azaroaren 8an. Trikitilarien laguntzaz, auzotarrek txorizoa, buzkantzak eta sagardoarekin egin zioten ohore San Martini...

AZPEITXI

Jatetxea

Aranerreka 13 behea. Bergara
943 76 55 00

Ganbara

TABERNA

Heure erara
ibiltzeko!

Irala z/g.
BERGARA
Tel. 943 76 55 75

ezpeleta

Ostalaritzarako
ehungintza

Ostalaritza eta
egoitzetarako
mahai-zapi eta
industri-ehunak

San Lorenzo 1, Bergara
Tf. 943 76 28 77
Tf. eta faxa: 943 76 17 09




IRRINTZI

kafetegia

Irala 3. BERGARA
Tel.: 943 76 48 26

INGAINARITIRAKA



Jesus Soto

BUTANO BANATZAILEA

Errioxako Hormilla herrikoa jaiotzez, 1962an etorri zen Jesus (60 urte) Bergarara eta ordutik hona butano banatzaile ibili da. Bergaran eta inguruko herrietan egiten du lan. Dagoeneko aitona ere bada Jesus, bilobatxoa dauka-eta.

Butanoa banatzeko derrigor indartsu egon behar...

Bai, lan txarra da. Zerbikaletatik eta tendoietatik lehertuta bukatzen dut batzuetan...

Zenbat pisatzen du bonbona batek?

Industrialak 70 kilo, etxeak 26,5 eta propanoak, 25.

Lanerako, negua ez da batera aproposa izango?

Ez. Euria, hotza, izotza... Gainera, egun batzuetan 100 kilometro egiten ditugu kamioian, eta begira zela dauden errepideak...

Puntualea zara?

Bai. Batzuetan ezinezkoa da, baina saiatzen gara.

Egunean zenbat bonbona banatzen dituzu?

Egunak daude, baina gaur goizean (martitzena) 162 banatu ditut.

Butano banatzailearen ofizioa laster desagertuko da?

Bai, gasarekin butanoa desagertzera doa. Garai batean, hainbat auzotan kamioi hustu eta butano gehiago eskatzen zuten...

Txikitari zer izan nahi zenuen?

Ez dakit, bizitza guztian nekazari eta lanbide honetan ibili naiz...

Bizitzan zeri ematen diozu lehentasuna?

Osasunari, familiarekin ondo egoteari...

Aisialdian zer egitea gustatzen zaizu?

Lasai ibili, paseatu... Pilota ere jarraitzen dut: lehen frontoira joaten nintzen; orain, berriz, telebistan ikusten ditut partiduak.

Nork irabaziko du lau t'erdiko txapelketa?

Titin sasoi onean ikusten dut.

Sukaldari ona zara?

Ez, baina San Migel-Peko lagunek kalderetea gertatzeko eskatzen didate. Zapatu arratsaldeetan meriendak egiten ditugu han.

Gustuko janari eta edari bana?

Paella eta Errioxako ardo beltza.

Urtaro bat? Asteko egun bat?

Udaberria eta uda parte. Egubakoitza, lana bukatzen delako.

Kinielan edo loterian milioi bat euro irabaziko bazenu?

Etxe bat erosiko nuke lehenbizi.

Erretiratzen zarenerako planen bat?

Ilbokin disfrutatu eta irteerak egin familiarekin, besterik ez.

EDU MENDIBIL

NIREBIDAIAHURA / Jorge Aranes

ZEELANDA BERRIA / 2003ko apirilean

Apirilean joan ginen Amaia eta biok Zeelanda Berrira. Lehenbizi Australiara joan ginen, Sidneyra, 35 orduko hegaldiaren ondoren, eskalak barne. Sidneyn lau egun eman genituen: oso hiri ederra da, Londresen eta New Yorken arteko nahasketa modukoa. Oso hiri kosmopolita da eta Opera House ospetsuaz gain, baditu beste hainbat toki interesgarri. Sidneytik nahiko gertu dauden Mendi Urdinak ikusten ere izan ginen. Sute handiak izan ziren han duela urtebete-edo, baina nahiko azkar errekuperatu da hango landaretza. Merezi du bisitak.

Sidneytik Zeelanda Berrirako abioia hartu genuen. Hegoaldeko uhartean dagoen Christchurch hiri kolonialera iritsi ginen. Ingelesen eragina duen hiria da, lasaia eta dotorea. Han auto-karabana bat hartu eta bi aste eman genituen hainbat leku ikusten; kilometro dezente egin genituen. Udazkena zen Zeelanda Berrian; beraz, goizean goiz jaiki eta iluntze aldera arte gauzak ikusteko aprobeztatzen genuen. Turismo-rako oso ondo gertatuta dagoen herrialdea da eta kanpinak, motelak eta *bed & breakfast* delakoak primeran daude, prezio onean, gainera. Queenstown izeneko hiria abentura kirolak atsegin dituztenendako paradisia da. Inguru hura oso menditsua



"Bi aste eman genituen Zeelanda Berrira zeharkatzen. Turismorako oso ondo gertatuta dago"

"Queenstown hiria abentura kirolak atsegin dituztenendako paradisia da"

Bidaia amaitzeko zazpi egunez izan ginen Pinesian, Tahitin eta Moorean. Paradisia da hura. Atsedean hartzeaz gain, badaude naturaz gozatzeko ekintzak. Benetan toki zoragarria.

EDU MENDIBIL



Maorien dantza ikuskizun bat Rotorua hirian. Han bizi da maorien gehiengo.



Artekalea 11, behea
BERGARA
Tel./Faxa: 943 76 30 57
E-posta:
idelta@teleline.es



ESKAINTZA

TFT 14" XGA pantaila
GB 1 arte handitu daitekeen RAM memoria.
64 MB SMA arteko bideo kontrolatzailea.
128 bit 2D/3D bizkortzailea
Dual View Display
1xPCMCIA Tipo II, 1xmini-pci
Barnean 2 bozgorailu eta mikrofono bat.
Irda, Modema 56K eta Lan 10/100
2,9 kg-tako pisua (bateriarik gabe)
308x254x37,5 mm

Celeron P4 2.4 GHz - 256 Mb RAM HD 20 GbCOMBO
1.059 euro (Beza barne)

Pentium 4 2.0 GHz - 256 Mb RAM HD 20 Gb COMBO
1.119 euro (Beza barne)

Eta gainera: Etxez-etxeko zerbitzu teknikoak, ordenagailuak, inprimagailuak, eskanerrak, kartutxoak...



POL-POL
Taberna

943 76 07 78. Bergara

MENDIA

Bigarren eskuko mendi materialaren azoka irekiko dute astelehenean Pol-Polen

Bergarako eta bailarako mendizaleek materiala saldu eta erosteko aukera izan dute azoka txikian azken urteotan

EDU MENDIBIL

Azken urteotako ohiturari jarraituz, Pol-Pol Mendizale Taldeak antolatutako azoka txikia zabalduko dute astelehenean. Azaroaren 29ra bitartean bigarren eskuko materiala erosteko aukera izango da Pol-Poleko lokalean.

Hamar bat egunean material bilketa egin ondoren, astelehenean zabalduko dute Pol-Pol Mendizale Taldearen azoka txikia. Andoni Larrañaga eski saileko, arduradunaren hitzetan, "dozena bat urte izango dira azoka txikia egiten hasi zenetik eta harrera ona izan du. Bergarakoak ez ezik, inguruko herrietako mendizaleak ere etortzen dira, materiala saltzera eta intereseko gauzaren bat aurkitzen duten ikustera".

Azoka txikia astelehenetik zapatuta bitartean egongo da zabalik, aste barruan 19:00etatik 20:30era eta zapatuan 18:00etatik 20:00etara. Esan bezala, bigarren eskuko materiala jarriko dute salgai. Andoni Larrañagak zera


esan digu: "Jendeak soberan duen materiala kentzeko bidea eta zerbaiten bila dabilenari topatzeko aukera eskaintzen dio azoka txikiak. Mendiko eta eskiko materiala egongo da: botak, granpoiak, pioletak, eskiak, txamarrak, iltzeak, mosketoiak... Prezio onean horrelako materiala erosteko ez dago aukera handirik, eta horregatik jende dezente etortzen da. Gurea izango da azoka bakarretakoa, eta orain hainbat zentro komertzial handitan hasi dira antzeko gauzak egiten".

LIZENTZIAK EGITEKO EPEA ZABALIK

Hastear dagoen eski denboraldiari begira, eskiko lizentzia egiteko aukera dago Pol-Polen, aste barruan 19:00etatik 20:30era.

GAZTETXOEN MENDI IRTEERA DOMEKAN

Bestalde, eskola kirolaren programazioaren barruan, domekan gaztetxoei zuzendutako mendi irteera izango da. Autobusa 08:00etan aterako da frontoitik eta gaztetxoek honako ibilbidea izango dute gero: Araotz-Aitzgain-Urkulu.



Azken egunotan jasotako mendiko eta eskiko materiala jarriko dute salgai Pol-Polen datorren astean.

ELKARRIZKETA

JON ANDUEZA/BEASAIN FUTBOL TALDEKO JOKALARIA

"Gure helburua da igoera play-offerako sailkatzea, lehen lauren barruan geratzea"

E.M.

Jon Andueza (23 urte) bigarren denboraldia betetzen ari da hirugarren mailako Beasain futbol taldean. Azken hiru partiduetan lesionatuta egon ondoren, zapatuan taldera itzuli zen defentsa bergararra. Beasainek 2-0 irabazi zion Sallekori Loinazen.

Aurten etxetik kanpoko partiduetan Loinazen baino finago zabilzate...

Bai. Etxean errazago ei da jokatzera, baina guri kontrako gertatzen ari zaigu, puntu gehienak etxetik kanpo lortu ditugulako. Lau partidu irabazi ditugu kanpoan eta Beasainen beste bi. Loinazen ere partidu onak egin ditugu, baina zortea ez dugu alde izan. Ea hori zuzentzerik daukagun, sailkapenean goian jarraitzeko etxeko puntuei eutsi beharra dago-eta. Lesioekin ere zorte

txarra izan dugu orain arte: bi aldiz jarraian hamaikakoa errepikatzerik ez dugu izan.

Zein da Beasainen helburua aurten?

Igoera play-offerako sailkatzea, lehen lauren barruan geratzea. Iaz azken jardunaldian galdu genuen aukera hori, Arenasen galduta. Aurten ere lehia horretan egon nahi dugu eta ikusiko da play-offean zer egiteko gauza garen. Kanporaketa bidez jokatuko da aurten; sistema hobe dela uste dut.

Zeintzuk dira zuen aurkari zuzenak?

Lemoa, Sestao, Gernika, Baskonia... Talde bizkaitarrak dira indartsuenak eta Lemoak eta Baskoniak ez dute partidurik galdu orain arte. Betiko moduan, lehia handia egongo da play-offerako sailkatzeko.

Entrenatzaile aldaketa izan duzue aurten. Zuen jokoan nabaritzen da aldaketarik?

Bai, Iñaki Eskisabelek Javier Mandiola ordezkatu du aulkian eta horrez gain zazpi fitxaketa egin dituzte, tartean Gernika taldeetik etorri den Iban Franco bergararrarena. Beharbada iaz joko fisikoagoa egiten genuen, eta aurkari presio handia egiten genien. Aurten, berriz, sistema aldatu dugu eta baloia luzaroago edukitzen saiatzen gara. Hirugarren mailako moduko kategoria batendako askotan ez dakizu zer den hobe, partiduak nahiko nahasiak izaten direlako.

Noiz arte duzu kontratua Beasainekin?

Bi urterako fitxatu ninduten, eta ekainean bukatuko zait kontratua. Hala ere, taldeak nahi badu, ni Beasainen jarraitzeko prest nago. Iaz 37 partidu jokatu nituen, eta oso gustura nago hemen, etxetik gertu jokatu ahal izatea ere kontuan hartzeko gauza da-eta. Ikusiko dugu, ea gauzak ondo joaten diren.





OLAIA MONDRAGON

Bergarak beharrezkoa du bihar hiru puntuak lortzea sailkapeneko goialdeko taldeek alde ez egiteko.

FUTBOLA

Bergara Anaitasunari irabazteko beharrean dago, bihar Agorrosinen

Azken emaitza negatiboen ondorioz, mahoneroek atzera egin dute sailkapenean

E.M.
Preferente mailako futbol taldeak Anaitasunaren aurka jokatu du bihar, zapatua, Agorrosinen, 15:30ean. Azken jardunaldian Elgoibarren galdu ondoren, mahoneroek atzera egin dute sailkapenean.

Amama Garairen taldea eskutitsik bueltatu zen Elgoibartik. Lehen zatian 2-0 aurreratu ziren elgoibartarrak markagailuan, eta emaitza horrekin amaitu zen norgehiagoka. Elgoibar taldea da preferenteko liderra, Hondarribarekin berdinduta. Bi taldeek

21 puntu dituzte. Bergarak, berriz, atzera egin du sailkapenean eta 9. tokian dago orain, 16 punturekin. Gauzak horrela, biharko partidua garrantzi handikoa da sailkapeneko goialdean diren taldeekiko alde ez handitzeko. Hasiera baten, mahoneroak dira hiru puntuak eskuratzeko fabritoak. Orain dela 15 egun Trinterpereren aurka bana egin arren, Garairen taldea sendo dabil etxean eta Anaitasuna atzetik dago sailkapenean: azkoitiarrak 14. postuan daude, 13 punturekin. Joan zen astean etxean galdu zuten Santo Tomas Lizeoaren aurka, 1-2.

BESTE HIRU PARTIDU ASTEBURUAN
Futbolarekin jarraituz, beste hiru partiduko dira aste bukeran Ipintzan: bihar, zapatua, lehen mailako gazte taldeak Lengokoak taldearen bisita izango du, 17:30ean. Joan zen astean Eskolapioak taldearen aurka galdu zuten etxekoek, 5-2.

Domekan, berriz, bigarren kadete mailako taldeak Eibartarrak hartuko du, 10:30ean. Bergarrek 7-0 galdu zuten zapatuan Arrasaten.

Azkenik, futbol 8-ko neskek Urkiren aurka jokatu dute, 12:00etan. Zumaiaokori 0-1 irabazi zion Bergarak aurreko astean.

FOTOKIROLA



Araneta-Zarautz bihar kiroldegian

Kadete mailako Araneta saskibaloitza taldeak Zarautz hartuko du bihar, zapatua, kiroldegian, 12:00etan. Iker Barberoren taldeak partidu erabakigarria izango du, bergararrak sailkapeneko laugarren tokian eta zarautzarrak bosgarren daudelako. Aurreko astean bergarrek 88-40 irabazi zioten La Salle taldeari. Nesken kadete mailako taldeak, berriz, Niessen-aren aurka jokatu du zapatuan kiroldegian, 12:00etan.

Gazte mailako eskubaloi taldea, bigarren sailkapenean

E.M.

Bergara KEko gazte mailako mutilen eskubaloi taldeak 31-24 irabazi zion domekan Arrasateri, kiroldegian. Josetxo Muniategiren taldeak ez du partidurik galdu orain arte eta bigarren dago sailkapenean.

Partidu onik jokatu ez zuten arren, bergararrak erraz nagusitu zitzaizen domekan arrasatearrei. Etxekoan partetik Mikel Plazaola izan zen golegile nagusia, 10 golekin. Josetxo Muniategiren taldeak bost partidu irabazi ditu eta beste bat berdindu orain arte. Domekan, 12:00etan, Aloña Mendiri bisita egingo dio Bergarak. Oñatiko Zubikoa kiroldegian izango da. Eta hurrengo astean Zumarragan jokatu dute, Urolaren aurka. Urola da liderra, jokatu partidu guztiak irabazita. Hala ere, Muniategiren arabera, Ereintza eta Bergara dira txapelkun izateko fabritoak. Elkarren aurkako partiduan berdindu egin zuten Ereintzak eta Bergarak.

HIRU PARTIDU ZAPATUAN

Bihar, zapatua, hiru partidu jokatu dira kiroldegian: kadete mailako mutilek Urolaren aurka jokatu dute 16:00etan; jarraian, kadete mailako neskek Urnieta-k hartuko dute, 17:30ean; azkenik, senior mailako nesken taldeak Ermuaren aurka neurtuko ditu indarrak, 19:00etan.



ARTXIBOA

Gazte mailako taldeak Arrasateri irabazi zion domekan, 31-24.

PILOTA

Gabon sariko eta Gipuzkoako Txapelketako partiduak gaur Udal Pilotalekuan

Gipuzkoako Txapelketaren barruan, gazte mailan, Eneko Mugu-ruzak eta Xabi Azurmendik Oñatiko bikotearen aurka jokatu dute gaur, egubakoitza, Udal Pilotalekuan, 20:00etan. Ondoren, Edu Samaniego-Igor Gutierrez senior mailako bikoteak Eibarko ordezkariren aurka jokatu du. Samaniego eta Gutierrez txapelketako azken fasean dira dagoeneko.

Bi partidu horien aurretik, Gabon sariko banakako bi partidu jokatu dira, alebin eta infantil mailakoak, 19:00etan.

LABEGARAIETAKO FUTBITOTXAPELKETA

ASTE BUKAERAKO PARTIDUAK

ZAPATUAN, KANPOAN

09:30: Dedo Pafarru-Torrekua. **Mongatxur.**
10:30: Móngatxurak-Belengua. **Dedo Paf.**

DOMEKAN, BARRUAN

09:30: Etengabe-Txipiron. **Santana**
10:30: Santana-Errotagain. **Etengabe**
11:30: Canalejas-Fit automocion. **Argandol.**
12:30: SDTNT-Argandolas. **Fit automocion**
16:00: Bar Bedarreta-A Ze Flaxa. **Fac**
17:00: Ganbara-Fac. **Bedarreta**


18:00: Vervenir-Toten Añiketan. **Artusamak**

19:00: TMT-Artusamak. **Toten**

20:00: Pirulotarrak-K.Piperrak. **TMT**

DOMEKAN, KANPOAN

10:30: Irubide-PDS. **Kalaveras**
11:30: Egurre-Kalaveras. **PDS**
16:00: De Resaka-Cosa Nostra. **Torpedo**
17:00: Torpedo-Pagomendi. **Teatekh**
18:00: Teatekh-Agirrebeña. **Pagomendi**



INA RUFO

Zeharkaldiaren lehen tarte, Cabo Nortetik Kemira, eskiekin egin zuten, batik bat, bidaiariak.

'Transeuropa 2001' diapositiba emanaldia egingo du, 19:30ean, UNEDen

Ina Rufo bidaiariaren diapositibak eguenean

MONIKA BELASTEGI

Ina Rufo bidaiariak diapositiba emanaldia egingo du eguenean, 19:30ean, UNEDeko areto nagusian. Bidaiariak *Transeuropa 2001* zeharkaldiaren gaineko diapositibak erakutsiko ditu; Norvegiako Cabo Nortetik hasi eta Tarifara arteko zeharkaldia, hain justu.

Ina Rufo errenteriarrak, Luis Angel Rojo gasteiztarrak, Patxi Ibarbia azpeitiarrak eta Javier Cuesta donostiarrak hartu zuten parte *Transeuropa 2001* zehar-

kaldian. Norvegiar hasi zuten zeharkaldia, Cabo Nortetik, eta Tarifara bukatu. 6.491 kilometro egin zituzten guztira, eta 144 egun eman zituzten kilometrook egiteko. Egueneko emanaldian, zeharkaldi horren gaineko zehaztasunak, argibideak eta diapositibak emango ditu.

ESKIAN GAINEAN, PIRAGUAZ ETA BIZIKLETAZ

Otsailaren 15ean ailegatu ziren Cabo Nortetik lau bidaiariak, eta 17an ekin zioten zeharkaldia. Otsailaren 17an, beraz, eskiekin egin beharreko tarte hasi zuten:

Cabo Nortetik Kemira, hain justu ere. Guztira 1.180 kilometro egin zituzten, batez beste 25 eguneko, eta guztira 48 egun eman zituzten tarte hori egiteko.

Hurrengo tarte uretan barrena egin zuten, piraguekin: Holsund-etik apirilaren 21ean abiatu ziren, eta 36 egunean barrena 1.080 kilometro egin eta gero, ekainaren 3an Västervik-era iritsi ziren lau lagunak.

Zeharkaldiaren azkeneko tarte bizikletaz egin zuten, batik bat; 4.231 kilometro guztira, hain justu ere, Västervik-etik Tarifara bitartean.

KULTURAPILULAK

Datorren egubakoitzean Oskorri taldeak egingo duen kontzerturako sarrerak salgai

Oskorri taldearen egubakoitzean, hilaren 28an, 22:30ean, Udal Pilotalekuan egingo duen kontzerturako sarrerak salgai jarri dituzte kultura etxean. Sarrera arruntak 8 euro balio du; 26 urtetik beherakoentako sarrerak, 6 euro; eta 17 urtetik beherakoek, 3 euro ordaindu beharko dituzte. Oskorri taldeak *Desertore* azken lana aurkeztuko du.

Musika Eskolako ikasle eta irakasleek Santa Zezilia ospatuko dute gaur, egubakoitza

Bergarako Musika Eskolako ikasle eta irakasleek Santa Zezilia musikarien eguna ospatuko dute gaur, egubakoitza. Eguna bihar, zapatua, den arren, gaur ospatzea erabaki dute: 17:15ean, kalejira egingo dute Musika Eskolako Bandarekin, eta horren ondoren, 17:45ean, txokolate-jana egongo da Musika Eskolako ikasleendako eskolan.

Deadly Snakes eta Ministry of Sound Jam aretoan izango dira bihar, zapatua

Zapatuan, hilaren 22an bi musika emanaldi egongo dira Jam aretoan. Alde batetik, Deadly Snakes taldearen kontzertua egongo da, eta atea 22:00etan zabalduko dute. Talde horrekin batera Bergarako talde batek ere egingo du emanaldia: Black Ships taldeak, hain justu ere.

Beste aldetik, 00:00etan techno musika egongo da Ministry of Sound-ekin.

Jose Campanari Argentinako ipuin kontalaria Pol-Pol tabernan izango da eguenean

Datorren eguenean, hilaren 27an, Jose Campanari ipuin kontalaria argentinarrak emanaldia egingo du Pol-Pol tabernan, 22:30ean.

Emanaldia Oihulari Klown taldeak antolatu du, eta ez da saio isolatua izango: datorren urteko maiatzera bitartean, hilabete bakoitzeko azkeneko egunetan ipuin kontalaria bat, eta kasu batzuetan bi, egongo dira. Gainera, oso herrialde ezberdinetako kontalaria egongo dira; besteak beste, Argentina, Senegal eta Euskal Herrikoak. Bestalde, ibiltariak ere badira emanaldiok; izan ere, kontalaria bakoitzak hainbat herritan egingo du saioa.

Datorren urteko maiatzera arte iraungo dute emanaldiok, eta dagoeneko zehaztuta dituzte: abenduan, Sevillako Pepe Perez etorriko da; urtarrilean, Madrildik, Griot; otsailean, Virginia Imaz, Txefo Rodriguez eta Beatriz Egizabal; martxoan, Palique madrildarra eta Victoria Guillon zamorarra; apirilean, Alberto Sebastian santandertarra, eta maiatzean, Estrella Ortiz etorriko da, seguru-eruenik. Esan bezala, emanaldiok hilabeteko azkeneko egunetan izango dira, Pol-Pol tabernan, 22:30ean.

Amodiozko gutunen lehiaketako baldintzak kaleratu dituzte

MONIKA BELASTEGI

Amodiozko gutunen XII. Berrigara lehiaketako baldintzak kaleratu ditu aste honetan Jardun elkarteak. Horrekin batera, SMS bidezko II. maitasun mezuen lehiaketakoak ere bai, iaz lehenengoz egin bezala.

Amodiozko gutunen lehiaketan 1989an edo lehenago jaiotako edonork har dezake parte. Lanean ez da egilearen daturik jarriko, lelo bat bakarrik. Egilearen datuak kartazal itxi batean sartuko dira

eta kartazal horren azalean lanean jarri den lelo bera jarriko da. E-mailez bidalitako gutunen kasuan, gutuna fitxategi batean bidaliko da, *gutuna* izenarekin, eta egilearen datuak, *egilea* izena duen beste fitxategi batean.

Lan orijinala eta haren hiru kopia honako helbidera bidali beharko dira egilearen datuak dituen kartazalarekin batera: Amodiozko Gutunen XII. Berrigara Lehiaketa; Jardun elkarteak, 103 PK, 20570 Bergara. E-mailez bidaltzen diren lanen kasuan, honako helbidera bidali beharko dira: kulturajardun@topagunea.com.

Lanak bidaltzeko azkeneko eguna urtarrilaren 8a izango da.

SMS BIDEZKO MAITASUN MEZUAK

Iaz antolatu zuten lehenengoz, eta izandako arrakasta ikusita errepikatzea erabaki dute Jarduneko kideek.

Mezu bakarria bidali ahal izango du pertsona bakoitzak, eta mezuaren ostean, poltsikoko telefonoaren zenbakia jarri beharko da. Mezuok bidaltzeko epe jakina jarri dute antolatzaileek: urtarrilaren 1etik 15era bitartean. Eta honako zenbakira bidali beharko dira: 605 71 24 69.



Sari ematea San Balentin egunean izango da (otsailak 14), ohi bezala.



2003ko ekainaren 13a

Gehixago eta hobeto programaren barruan Bergarako Udaleko Euskara Zerbitzuak argitaratutako aldizkaria. 7. alia

IEPA LAGUNOK! HOBETZEKUAK

Akordatzen zarete nerekin? Bai ezta? Ia ba, ezagutzen ez nabe-nendako esan ni Pottoka naizela. San Martzial ondoko zelai batian bizi naiz. APATXIn eginkizun desberdiñak proposatzen dotsuet eta ondoren ikastetxietan banatuko dotsuen erantzun orri-xak zuzentzen dittut. Galderak zuzen erantzuten ditzuzenen artian erregalu polittak zozketatuko dittut. Animo!!!!



1. KONPARAZINUAK

Konparatzen diren bi terminuak deklinabide kasu bera izan bihar dabe:

- Ni zu baiño mantsuagua naiz.
NOR NOR
- Ni zure baiño mantsuagua naiz.
NOR NOREN
- Nik zuk baiño azkarrago egin dot.
NORK NORK
- Nik zure baiño azkarrago egin dot.
NORK NOREN



BEZALA/ MODUAN

Modu izena danez, izenlagunak (-ren edo -ko dauzkatena) onartzen dittu baiña *bezala* ez danez izena, ez dau izenlagunik onartuko.

- Zure moduko zapatillak dauzkat.
- Zure bezalako zapatillak dauzkat
- Betiko moduan egingo dot.
- Betiko bezala egingo dot.

IGARKIZUNA

Txiki-txikixa
Kolorerik barekua
Ni moduko millaka
lagunek
Egitten dabe itsasua




ERANTZUNA: ur tanta

2. HARRIDURAZKUAK

Oso zabaldua dago harridurazko esaldixetan gaztelaniaren egitturak erabiltzia:

iqué rapido!, *iqué guay!* eta abar. Euskaraz hainbat egitura dauzkagu esanahi hori adierazteko.

- Zelako azkar!
- Zelako ondo!
- Zelako auto ederra!



KOMIKIXA



LOTU MARRAZKIXAK, ONDOKO ESALDIXEKIN:



1. A. Zelako gozua!



2. B. Baietz igo!



3. C. Baietz zu baiño lehenago heldu!



4. D. Zelako indarra daukan!



5. E. A ze higuña!



6. F. Hara zein datorren hor!



7. G. Nire anderiaren modukua daukazu



8. H. Gaur irteeria daukagu, zelako ondo!



9. I. Ezetz nik baiño urriñago bota!



10. J. Betiko moduan, berandu!

ERREZETIA

GABONETAKO TRUFAK

Urtero moduan, aurten be hasiko dira laster janari betekadak. Oin zure gurasuekin egitteko errezeta gozo-gozo bat proposatuko dotsugu, saiatu egitten eta Argiñano baiño ospetsuagoa egingo zara zure familixakuen artian.

Osagaixak:
250gr txokolate beltz
2 goillarakada esne
2 arrautza gorringo 250gr kakao
75gr gurin


1. Txokolatia zatittu. Eskuz egin zeinke, baina kontuz! Txokolatia lapikuan bota eta ez ahuan. Ondoren esnetan urtu, baiño-marian, horretarako gurasuei laguntza eskatu.
2. Gaiñeratuixozu guriña eta gero gorringuak banan-banan.
3. Dana ondo nahastu, ore baten modukua geratu arte.
4. Ondoren, bolatxuak egin txokolate oriarekin, baiña kanikak baiño haundixaguak egin, e!
5. Bukatzeko, kakao iriñetan bildu, forma politta emon, hozkailluan sartu eta on egin danoi!



HITZ MISTERIOTSUA

Hitz danak ongi betez gero, laster etorriko dan pertsonaje maigarri baten izena asma zeinke:

1. Zein da Malakas hitzaren esanahixa?
2. Animalixa da, untxiaren modukua, baiña honen baiño azkarragua. Zein da?
3. Zein da APATXI honetan prestatuko doguna eta turroia baiño gozoagoa dan jakia?
4. Zer da gaua baiño beltzagua dana?
5. Zein animalixa da zizare baten modukua baiña gauetan argixa emoten dabena?



INKESTIA



Haundi egindakuan zeinen modukua izan nahiko ziñuke?



Beñat Lizarralde

Alberto Iñurrategi bezalakua izan nahi neuke, mendixan ibiltzia asko gustatzen jatelako. Eskalatzen ikasi nahi neuke. Pol-Pol mendi elkartiakin apuntauco naiz hemendik urte batzutara.



Maite Txintxurreta

Nihat, Arantzabal edo holako futbol jokalaria baten modukua. Asko gustatzen jat futbola. Egixa esateko, neskendako ez dago aukera haundirik, baiña ahal dotenian futbolian egittia gustatzen jat.



Aitziber Perez

Abeslari ona izan nahi neuke. La Oreja de Van Gogh taldeko Amaia Montero asko gustatzen jat. Askotan entzuten dot. Etorkezunian haura moduko abeslarixa izan naihiko neuke ondo egongo litzake.



Ander Etxezarreta

Futbolariixa izan nahi dot haundi egindakuan. Realeko Jauregi jokalaria gustatzen jat, nik be defentsan jokatzen dotelako. Hala be, ikasketak eta futbola bixak batera ondo eruan nahi nittuzke.


NERE AHOLKUA



YAIZA PLAZAS
San Martin ikastetxea

'MARISORGIN OSPITALEAN'

Terence Blacker
Itzultzaillia:
Antton Olano.
Elkarlanean argitaletxea



Liburu honen protagonistia Marisorgin da. Oingo honetan ospitale batera juango da. Han, Jack izeneko mutil bat dago gaixorik. Marisorgiñek asko lagunduko dotsa. Marisorgin beti dago jendeari laguntzeko gertu eta oso alaia da bera. Liburua politta, dibertigarrixa eta atsegiña dala pentsau jat. Oso ondo pasau dot irakurtzen jardun doten bittartian.



IZARRAK ETA LIRAILI PRINTZESA

Aintziña, gauzak ez ziren gaur egun diren modukuak. Garai hartan ez zegoen ez illargirik, ez eta izarrik be.

Zeruak lurra ikutzen zeban ixa-ixa eta laiñuak, zer esanik ez, eskura zeren.

Umiak ondo baiño hobeto ibiltzen ziren. Gaur egungo umiak baiño txikixaguak zirenez, ez zeben zerua buruakin jotzen eta egun osua emoten zeben laiñuekin egindako bolak elkarri botatzen, edurrezko bolak balira moduan.

Nagusixak, ordia, makurtuta ibilli bihar izaten zeben beti, zeruarekin

kaskarrekorik ez hartzeko. Zerua hain gertu, hain behian egotiak makiña bat buruhauste eragitten zotsen. Gabian neka-neka eginda egoten ziren, egun osuan makurtuta ibilli ondoren. Gaiñera, gauak illunak eta tristiak ziren, illargirik eta izarrik ez zegoelako.

Urriñeko herrialde batian printzesa eder bat bizi zan. Izena be oso politta zeukan: Liraili (Liraili-k “egunsentia” esan nahi ei zeban euren hizkuntzan).

Arratsalde gozo batian Lirailik jauregiko lorategixan ziharduan josten. Aldian zeuzkan bitxiak oso astunak zirenez, buruko diadema, belarritxakuak, eratzunak eta diamantezko lepoko luzia kendu eta bi laiñuren artian esegi zittuan.

“Orain lehen baiño hobeto nago”, pentsatu zeban Lirailik zama haura

arinduta. Dana dala, bazeukan beste kezka bat, beste buruhauste bat: jostiari laga eta burua altxatzen zeban bakoitzian zeru-sapaixari takateko ederra emoten zotsan. Horregaittik bere nebari laguntzia eskatzia erabaki zeban.

Neba Malakas deitzen zan (Malakas hitzak, “sendua” esan nahi ei zeban). Izan be, herrialde hartako gizonik indartsuena bera zan. Lirailik hau esan zotsan Malakasi:

-“Malakas, bada garaixa zure indarra jendiaren onerako erabil deizun, jendiari laguntzeko”.

-“Zer nahi dozu egittia, Liraili?”.

-“Jasoizu zerua gorago. Hala ez dogu zerupian makurtuta ibilli biharko”.

Malakas zeruari bultzaka hasi zan. Beno, bultzada bakarra egin zotsan, makakua bera. Zeruak gorako bidea hartu zeban eta ez zan berehala gelditu: egunak juan egunak etorri, zerua urrunduz juan zan.

Baiña zer ahaztuko eta Lirailiri bitxiak hodeietatik hartzia ahaztu! Oooh! Zelako lastima! Ordutik aurrera bere buruko diadema zeruan zintzilik dago, eta guk “Ilargixa” deitzen dotsagu. Baiña bitxi gehixago be ahaztu zittuen: belarritakuak, eratzunak eta diamantezko lepokua. Han goixan daude guztixak: Izarrak.



GUREGAIK/ HEZKUNTZA

EHUK notak e-posta eta sms bidez bidaliko ditu

E.I.

Ikasleek unibertsitatera edo haren webgunera jo behar izaten dute azterketen emaitzak jakiteko. Laster, baina, horiek poltsikoko telefonoan edo e-postan jasotzeko aukera eskainiko die EHUK.

Euskal Herriko Unibertsitateko ikasle bazara, laster zure poltsikoko telefonoan edo e-postan lagunen mezuak jasotzeaz gain, unibertsitatekoak ere jasoko dituzu. Horiek, gainera, izugarritzko poztasuna edo guztiz kontrakoa eragingo dizute. Izan ere, azterketen emaitzen berri emango dute. Baina lasai, zerbitzu hori hala eskatzen duenari bakarrik eskainiko

zaio, eta ez ikasle guztiei. Gainera, ordaindu egin beharko da, mezu poltsikoko telefonoan jaso zein posta elektronikoa.

Zerbitzu hori oraindik ezarri gabe du EHUK, baina horretan ari dira. Unibertsitatea bera ez da arduratuko mezuak bidaltzeaz, beste enpresa baten esku egongo da zerbitzua. Enpresa hori aukeratzeko lehiaketa antolatu berri du EHUK.

0,20 EURO SMS BAKOITZA

Zerbitzu hori izan nahi duten ikasleek urtebeteko kontratua egingo dute enpresarekin. Poltsikoko telefonora bidalitako mezu bakoitzeko 0,20 euro ordaindu beharko dira eta 0,10 euro inguru mezu e-postan jasota.



EHUK azterketen emaitzak sms bidez jakinaraziko ditu.

LOTSABARIK/ Yanire Marquez

“Dantzatzea ikaragarri gustatzen zait”

E.I.

Musika eta dantza oso gustuko ditu Yanirek, baina herrian dantza ikastaro falta sumatzen du. Hala ere, badu beste zaletasun bat: autoak eta motoak. Ikusteko eta ibiltzeko ere gustatzen zaizkio.

- Alkate izango bazina, zer aldatuko zenuke? Gazteentzako gauza gehiago jarriko nituzke.
- Zure karpetan zer irudi edo pegatina daukazu? Brad Pitt aktorearenak, autoenak eta motoenak.
- Telebistako saio gorrotagarriena? Eta gustukoena?

Salsa rosa eta holako txutxumutxu saioak ez zaizkit gustatzen; gustukoena, aldiz, *Los Serrano* eta *Un paso adelante* telesailak.

- Pertsonaia higuinarriena? Eta gustukoena? Paco Porras higuinarrria da; gustukoena, Brad Pitt.
- Zerk amorratzen zaitu? Jende harropuzta eta besteei gaizki begiratzen dietenak.
- Zer estimatzen duzu besteengan? Itxuragatik ez epaitzea, entzuten jakitea eta besteak errespetatzea.
- Zeri ematen diozu lehentasuna bizitzan? Besteak errespetatzen jakiteari eta kultura izateari.

• Zure bertute bat? Eta akats bat?

Entzuten dakit eta ardurasua naiz; bestalde, perfekzionistegia naiz eta batzuetan pazientziarik ez daukat, asko urduritzen naiz.

- Zelan ligatzen duzue gazteok? Orokorrean gazteek edan egiten dute ligatzeko, bestela ez dira ausartzen.
- Zure bikotekide ideala zela-koa izango litzateke? Atsegina eta, guztiaren gainetik, nire laguna.
- Nora eta norekin egingo zenuke bidaia bat? Nire lagun onenarekin edo mutil-lagunarekin toki exotiko batera joango nintzateke.



ADINA: 15 urte • IKASKETAK: DBHko 4.maila • ZALETASUNAK: Dantza, musika entzutea eta autoak eta motoak • LIBURU BAT: *El diario de Ana Frank* • FILM BAT: *La vida es bella* • MUSIKA TALDEA: Andy y Lucas eta Alex Ubago

BERRIGARA Egunkoia / 2003ko azaroaren 21a


NEVER SURRENDER-EN KONTZERTUA, GAZTETXEAN
Never Surrender eta beste bi taldek kontzertua eskaniko dute bihar, zapatua, gaztetxean 22:30etan hasita.

3D ANIMAZIOKO JOEREN ERAKUSKETA DONOSTIAN
3D animazioko azken joeren erakusketa izango da hurrengo zapatuan, hilak 29, Donostian. 3Dko film laburrak, bideoak eta iragarkiak ikusteko aukera paregabea izango duzu han. Erakusketa Gazteguneko 11. gelan (Anoetako pasealekua 28) egongo da eta 17:00etan irekiko dute.

ALBISTE ETA ARGAZKI XELEBREEN LEHIAKETA
Gaztetxulo gazteen hilabetekariak Xelebre Press izeneko kazetaritza lehiaketa antolatu du. Umorea oinarri dituzten albiste eta argazki xelebreak sarituko dira lehiaketan. Albisteak benetako istorioren batean oinarrituak edo asmatuak izan daitezke. 14 urtetik 30era bitarteko gazteek har dezakete parte. Lanak gaztetxulo@bagera.net helbide elektronikora edo Gaztetxuloren egoitzara (Pedro Egaña 1. eskuina /20006 Donostia) bidal daitezke. Modalitate bakoitzeko irabazleak home-cinema bat eskuratuko du.

ENPLEGUA BILATZEKO TEKNIKEN IKASTAROA
Enplegua bilatu nahi baduzu eta ez badakizu nondik hasi eta nora jo, enplegua bilatzeko teknikei buruzko ikastaroa eskaintzen dizu. ASFAMOGI elkarteak. 31 arte duzu izena emateko epea. Informazio zabala goa nahi izanez gero, deitu telefono zenbaki honetara: 943 29 18 25.

TIRABIRAKA/ Joseba Lasa



JOSEPH '03

ZAHARRAKBERRI



Musika Eskolako biolin laukoteak emanaldia egin zuen astelehenean. Eskuman, toka eta igela txapelketetako sarituak: zutik, Cande Zangitu eta Santi Etxeberria. Jarrita, Mila Lezama, Ines Davila eta Edurne Osinaga.

Mizpirualderen Astea ospatzeko ekitaldiak bihar arte

EDU MENDIBIL

Azken urteotako ohitura-ri eutsiz, Mizpirualde egoitzaren astea ospatzeko hainbat ekitaldi izan dira egunotan egoitzan bertan. Aste barruan musika emanaldiak, txapelketak, bingoa eta

bestelako jolasak egon dira, eta bihar, zapatua, meza eta bazkaria izango dira. Musikaz lagundutako meza 11:45ean izango da eta bazkaria, 13:00etan. Bazkaloetan, berriz, opariak zozketatuko dituzte bildutako artean eta jai astea amaitzeko dantaldia izango da.

Arantxa Goikoetxea herna-niarrak urte eta erdi darama Mizpirualde egoitzako koordinatzaile lanetan. Ospatzen ari diren aste honen helburu nagusia egoitzari bizitasuna ematea dela diosku: "Data hauetan ondo dator giroa zertxobait gehiago piztea, eguraldia nahiko goibela izaten

da-eta. Hori dela eta, bizilagunei zuzendutako ekitaldiak prestatzen ditugu urte sasoi honetan, eta alde horretatik eskertzekoa da herriko hainbat talderen partetik urtero jasotzen dugun laguntza. Bihar, zapatua, bazkari berezi batekin amaituko dugu aste honetako jai ekitaldia".

ERRESIDENTZIA, BETETA

Gaur egun 115 lagun dira Mizpirualde egoitzan. Antzuola, Elgeta eta Bergarako pertsona edadetuak daude bertan. Azkenaldian bezala, sartzeko zain jende dezente dago: "Itxaron-zerrenda luzea dugu", diosku Arantxa Goikoetxeak.



Lizarrara irteera eguaztenean

San Joxepe erretiratuaren elkarteko lagunek Lizarrara irteera egingo dute datorren eguaztenean, azaroaren 26an. Programari dagokionez, upategi batzuetara bisita egingo dute. Jarraian, Puyko basilikara eta Iratxeko monasteriora (argazkian) joango dira. Egun osoko irteera izango da eta Bergararik 08:30ean aterako dira, autobus geltokitik. Irteeran parte hartzeko interesa dutenek lehenbailehen eman beharko dute izena Boni Laskuraineko egoitzan, 943 76 30 09 telefonoan.

LABUR

Alargunen Elkarteko urteko bazkaria abenduaren 8an

Alargunen Elkarteak urteko bazkaria egingo du abenduaren 8an Sirimiri jatetxean. Dagoeneko 25 urte pasatxo dira elkarte sortu zutenetik. Gaur egun 80 bazkide inguru dira. Abenduaren 8an, Kontzezino egunean, ospatzen dute elkartearen eguna, halako egun baten inauguratu zutelako. Joan zen urteko bazkarian 40 lagun elkartu ziren. Izene-matea Seminarioko lokalean, aste barruan, 18:00etatik 21:00etara.

Herran

ELEKTRIKAKO TRESNAK

Soinua, telebista, hozgailuak...

Matxiategi, 3
943 76 12 22

SUKALDEKO ALTZARIAK

Vegasa banatzaile ofiziala

Matxiategi, 4
943 76 37 53



BONOFOTOA



MIGUEL ANGEL ELKOROBREZIBAR

Zein da baserri horren izena?

GALDEDEBALDE

- | | | |
|--|--|--|
| <p>1.
Zein urtetan sortu zuten Murinondon dagoen Lazpiur enpresa?</p> <p>A/ 1972an.
B/ 1964an.
C/ 1968an.</p> | <p>2.
Amodiozko Gutunen Lehiaketako zenbagarren ekitaldia da orain deitutakoa?</p> <p>A/ Hamargarrena.
B/ Hamabigarrena.
C/ Hamaseigarrena.</p> | <p>3.
Nola du izena Beasain futbol taldeko zelaiak?</p> <p>A/ Garmendipe.
B/ Txerloia.
C/ Loinaz.</p> |
|--|--|--|



Super BMk emandako **30 euroko erosketa-txartela** trokatatuko du BERRIGARAK asmatzaileon artean!

AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA

NEREA ETXANIZ endako izan da 30 euroko erosketa-txartela. Zorionak, Nerea! Aurreko asteko galderen erantzun zuzenak hauek dira: Bonofotoa: Bidekurutzeta kalean / Galde debalde: 1-C, 2-A, 3-B.



BONOFOTOA

GALDE DEBALDE 1/ 2/ 3/

Ekarri txartela **MARTITZEN EGUERDIRAKO BERRIGARARA!**

IZEN-DEITURAK

TELEFONOA

Milka txokolate esneduna

125 g-ko tableta, 3x2ko sorta

1,38€

230 pezeta

Super BMn beti eskaintzarik onenak!



BERGARAROSPETSUAK

Telesforo Arantzadi (eta 3)

KOLDO PEREIRA

Arantzadik historiaurrea eta etnografia oso gogokoak zituen eta Euskal Herrian herriz herri eta mendiz mendi ibili zen, haitzulo, leize, harpe eta trikuharri ia guztiguztiak ikertzen. Gehienetan Eguren eta Aita Barandiaran izaten zituen lagun. Gure Idurixoko haitzuloa 1927an arakatu zuten.

Bere ahalegin handiak eta gogo biziak bidezko ordaina jaso zuten 1936an: Itziarko Urtiaga haitzuloan euskal garezur zaharrena aurkitu zuen, bost urtez ikerketa neketsuak egiten jardun ondoren. Garezurra Goi Paleolitoko Madeleine aldikoa zen, eta aurkikuntza horren ondorioz milaka urte lehenago finkatu zen euskal arrazaren jatorria.

Testu asko eta asko idatzi zituen. Lanon artean *Síntesis métrica de los cráneos vascos* nabarmentzen da. Txostenak eta komunikazioak bidali zituen hainbat Nazioarteko Antropologia eta Etnografia biltzarretara. Era berean, Humboldtkek Euskal Herriari buruz idatzitako lanak itzuli zituen. Bergararekin lotutako lanak ere argitaratu zituen. Bartzelonan hil zen, 1945eko otsailaren 12an.

Euskal garezur zaharrena aurkitu zuen Itziarko Urtiaga haitzuloan, 1936an



ARTXIBOA

ETXEBERRIA

ERLOJUTEGIA-BITXITEGIA

Bidekurutzeta 16 BERGARA
Tf. 943 76 23 94 / 943 76 12 65

KONDE PANADEROKUA



Burdiñate 1
943 76 02 57
Toki Eder plaza 3
943 76 14 87
BERGARA

Dietetika eta Nutrizio Kontsulta

- Osasun arazoak
- Etxez-etxeko zerbitzua
- Balorazio nutrizionala
- Ikastaroak
- Dieta pertsonalizatuak

(...) **mireia alberdi** (t) 943 76 60 45
DIETISTA-NUTRIZIONISTA (s) 646 43 34 58
(e) mireialber@euskalnet.net

Olaran etxea, herriko plaza 3
20577 ANTZUOLA



BERGARA
Amaia Ruiz
Azaroaren 25an, 4 urte.
Urte askotarako!
Familia, Olatz eta Ander.



BERGARA
Sara Mancho
Azaroaren 20an, 6 urte.
Urte askotarako!
Lagunak eta Ruth ahizpa.



BERGARA
Martin Telleria
Azaroaren 17an, 6 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



BERGARA
Amaia Gallastegi
Azaroaren 18an, 7 urte.
Zorionak! Etxekoak eta
lehengusu-lehengusinak.



BERGARA
Josu Gaztelu
Azaroaren 26an, 2 urte.
Zorionak! Etxekoak eta
lehengusu-lehengusinak.



BERGARA
Maitane Gallastegi
Azaroaren 28an, urtebete.
Zorionak! Etxekoak eta
Familia osoa.



BERGARA
Olatz Diaz
Azaroaren 21an, 6 urte.
Urte askotarako!
Familiakoak.



BERGARA
Mikel Aranzabal
Azaroaren 21an, 7 urte.
Urte askotarako!
Familia.



BERGARA
Remi Aranzabal
Azaroaren 21an, 43 urte.
Urte askotarako!
Familia.



BERGARA
Maite Nuñez
Azaroaren 27an, 8 urte.
Urte askotarako!
Gurasoak eta Nerea.



BERGARA
Nahia De Jesus
Azaroaren 20an, urtebete.
Urte askotarako!
Aiton-amonak.



BERGARA
Alazne Mujika
Azaroaren 20an, 2 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak, lagunak eta Ane.



BERGARA
Nerea Urresti
Azaroaren 25an, 9 urte.
Zorionak! eta muxu handi
bat etxeko pianista!



BERGARA
Martxel Bengoa
Azaroaren 23an, urtebete.
Urte askotarako!
Lehengusu-lehengusinak.



BERGARA
Manuel Moreno
Azaroaren 23an, 38 urte.
Zorionak! Familia, Miriam
eta Christian.

Zorionak!

Zorion itzazu lagunak
eta senitartekoak
BERRIGARAren bidez!
Ekar ezazu bere argazkia*
eta emaitza ezusteko ederra! **Doan!**



BERGARA
Jon Perez
Azaroaren 22an, 7 urte.
Urte askotarako!
Gurasoak.



BERGARA
Nerea Odriozola
Azaroaren 26an, 6 urte.
Urte askotarako!
Gurasoak eta Maiálen.



BERGARA
Enara Chimeno
Azaroaren 23an, 6 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



BERGARA
Asier Taboada
Azaroaren 22an, 9 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



BERGARA
Paco Molina
Azaroaren 22an, 68 urte.
Zorionak! Etxekoak,
Marta eta Markel.



BERGARA
Ekhi Lete
Azaroaren 24an, urtebete.
Urte askotarako!
Nora, Aritz eta Aroa.



BERGARA
Lorena Elempuru
Azaroaren 26an, 6 urte.
Urte askotarako!
Familiakoak.



ANTZUOLA
Ugaitz Iturbe
Azaroaren 17an, 20 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



ANTZUOLA
Endika Mata
Azaroaren 21an, 9 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



BERGARA
Karlos Etxaniz
Azaroaren 23an, urteak.
Zorionak eta muxu asko!
Jonxu eta Txusi.

Adi!

Argazkiak emateko lekuak:

Bergara: Berrigara, Irizar jauregia, Barrenkalea 33


Antzuola: Udal Liburutegia, astelehenetan 17:00etatik 19:00etara

Elgeta: Erosle-Baltxongua


*Argazkiaren neurria, gehienez: 13 x 18 cm.

Pertsona bera bakarrik nahiz taldearen barruan agertzen den argazkia ekar dezakezu. Argazkia oso-osorik jaso ahal izango duzu, zorion agurra BERRIGARAren agertu ondoren. Argazkia, urtebetetze eguna baino bi aste lehenago ekartzea komeni da.


ARREGI AROZTEGIA



PVCzko
LEIHOAK




Zatoz gure
erakusketa handitu
eta berritura.
Bidekurutzeta
38an gaude.



SUKALDEAK

ATEAK ETA
LEIHOAK



HORMA ARMAIRUAK

BAITA ERE: Tarimak, parketak • Gradulux pertsiana eta kortina graduagarriak • Flex koltxoiak • Mota guztietako arozlanak

Tailerra Urteaga, 20. 943 76 11 73 Erakusketa Bidekurutzeta, 38. 943 76 31 03

gelatza s.a.
Zubillaga auzoa OÑATI
Tel.: 943 71 63 22 - Faxe: 943 78 15 51

Zure etxeak behar duena
Eraikuntza materiala
Iturgintza
Berogintza

Kontuola

ANTZUOLA / Egubakoitza / 2003eko azaroaren 21a / 179. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Aintzane Irizar • Barrenkalea 33 20570 BERGARA • Tel.: 943 76 03 97 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta elektronikoa: kontuola@goiena.com • Lege gordailua: SS1179/02

'Euskal pilota' filma bihar Herri Ikastetxean

ENEIDA ITURBE

Urteak dira Antzuolan nagusientzako zinerik ez dagoela. Asteburu hau, aldiz, berezia izango da, *Euskal pilota, larrua harriaren kontra* filma emango baitute. Zinetokia ere ezohikoa izango da: Herri Ikastetxea. Sarrerak salgai daude Altzarten eta liburu dendan.

Donostiako Zinemaldian lehen aldiz eman zutenetik zeresan handia eman du *Euskal pilota, larrua harriaren kontra* film-dokumental. Estreinalditik bi hilabete pasa dira, eta orain, Julio Medemen filma herrian ikusteko aukera dago. Bihar, zapatua, bi emanaldi izango dira Herri Ikastetxean, bata 18:00etan eta bestea gaueko 22:00etan.


Hiru euroren truke eros daitezke sarrerak. Altzarte okindegian eta Itzar liburu dendan salgai izan dira aste osoan. Dena den, bihar, emanaldiak hasi aurretik, leihatilan erosteko aukera ere izango da.

Elkarrik ekarri du *Euskal pilota, larrua harriaren kontra* herrira. Ekimen hau zinematik ez duten zenbait herritan bultzatu du talde honek. Filmak "bazterketa gabeko elkarrizketa eta akordioaren alde" egiten duela garrantzitsua iruditzen zaio Elkarriri jendeak ikustea.

Zineko proiektorik ez dago Antzuolan; beraz, filmaren kopia bat lortzeaz gain, proiektorea ere alokatu egin behar izan du Elkarririk. Filma emateko Herri Ikastetxea aukeratu dute.

70 TESTIGANTZA INGURU

Julio Medem zuzendari donostiarrak urteak daramatza Madril bizi izaten. Betidanik nahi izan du Euskal Herriaren inguruko film bat egitea, baina horretara bultzatu duena Madrilgo prentsak euskal gatazkaz hitz egiteko duen era izan da. Medemen ustez errealitatea sinplifikatu eta eraldatu egiten dute hauek. Horregatik, gatazkaren inguruko askotariko iritzia izan ditzaketen guztiei hitz egiteko aukera eman nahi izan die *Euskal pilota, larrua harriaren kontra*-n.



Euskal pilota filma Antzuolan ikusteko aukera izango da bihar, zapatua.

"Bazterketarik gabeko elkarrizketa eta akordioaren alde egiten duelako ekarri dugu filma"

Hirurogeita hamar pertsona elkarrizketatu zituen zuzendariak filmerako. Elkarrizketa bakoitzak 45 minutu edo gehiago iraun zuen, baina filmerako bakoitzetik segundo edo minutu batzuk bakarrik hartu ditu. Medemek berak egin zuen aukeraketa eta muntaia. Politikariak, idazleak, abeslariak, presoak eta ETAK hildakoen familiarrekoak, torturatuak eta mehatxatuak dira

Medemen filmean hitza duten batzuk. Eurekin batera euskal paisaia eta ohiturak eta Mikel Laboaren abestiak ere protagonista dira.

SINADURA BILKETA DOMEKAN

Elkarrik Bake Konferentzia berrirako sinadurak bilduko dituzte domekako gaztina erre janean. 18:00etatik 20:00ak arte mahaia jarriko dute Herriko Plazan hala nahi duenak sina dezan. Gaztina erre jana ere 18:00etan hasiko da.

Elkarriren helburua 100.000 sinadura lortzea da Parlamentuetan elkarrizketa foro alderdianitza proposatzeko. Urriari hasi zuten bilketa Euskal Herrian, eta baita Antzuolan ere. Udaltzetan eta Itzar liburu dendan dago sinatzeko aukera.

SARIA

Elvira Kortajarena zinegotzia saritu dute

E.I.

Elvira Kortajarena Antzuolako PSE-EEko zinegotziak sari bat jaso berri du ezinduen eskubideen alde egiteagatik. Minusbaliotasuna duten Lagunen Ordezkarren Batzorde Espainiarrak (CERMI) Ohorezko Aulkiarekin saritu du Elvira.

Zinegotzia izateaz gain, Gipuzkoako diputatu ere bada Kortajarena. Diputazioko Ongizate Sailan egindako lanagatik saritu du CERMIk. Batez ere 2004ko Laguntza lege-proiektuari ezarritako zuzenketengatik, "ezinduen laneratzearren alde egiten baitute".

Zinegotziak salatu du ezinduek oraindik ere bereizketa jasaten dutela eta horrek ez diela garatzen uzten. Horregatik, oztopo eta aurreiritziekin amaitzeko zenbait arau juridiko aldatzeko beharra ikusten du berak.



Elvira Kortajarena diputatua ere bada.

BIGARREN SARIA DA HAU

Hau ez da izan Kortajarenak jaso duen lehen saria, Espainiako Hitz Moteltasunaren Fundazioak zilarrezko domina eman baitzion duela aste gutxi.

LABUR

Baserrian sortutako plastikoa bilduko dute datorren martitzenean, hilaren 25ean

Baserri ingurunean sortutako plastikoa bilduko du Deba Garaiko Mendi Nekazaritza Elkarteak. Plastikoa ateratzeko eguna datorren martitzena, azaroak 25, izango da. Gure Txokoko apartalekuan utzi beharko da plastikoa martitzen arratsaldean, eta bilketa hurrengo goizean egingo du elkarteak. Ondorengo materiala jasoko dute: siloa estaltzeko erabiltzen den plastiko beltza, belar botan erabiltzen dena, negutegietan eta ortuan lurra estaltzen duena, eta negutegiko plastiko zuria. Plastikozko sokei dagokienez, lokarri bezala erabiliko direnak bakarrik bilduko dituzte.

Literaturaren inguruko hitzaldia egunean, Aritz Gorrotxategi idazlearen eskutik

Irakurzaletasuna; literaturaren funtzioa eta etorkizuna izeneko hitzaldia egingo du Aritz Gorrotxategi idazle donostiarrak egunean, hilak 27. Arratsaldeko 18:30ean izango da hitzaldia. Olanan etxean. Literaturaren inguruan mintzatuko den Aritz Gorrotxategi Grosen jaio zen 1975ean. Gaztea den arren, hainbat liburu argitaratu ditu baita zenbait literatura sari jaso ere. Donostiar horrek bi nobela idatzi ditu, *Kafkaren labankada* eta *Egurra Pinoxori*, lehena 2000n eta bigarrena 2002an. Poesia liburu bat, *Taxibat Hamletentzat*, eta *Galtzontziloak autobusean zintzilik* izeneko kronika ere argitaratu ditu.

ELKARRIZKETA

MARIA JESUS ITURBE/PAUSOKAKO LEHENDAKARIA

"Badirudi datorren ikasturterako 0-3 urteko zikloa jarriko dugula Herri Ikastetxean"

E.I.

Pausoka Antzuolako Guraso Elkarteak batzarra egingo du martitzenean, hilaren 25ean, 18:30ean. Batzorde erdi aldatuko dute. Maria Jesus Iturbe Pausokako lehendakariarekin egon gara, eta urteari begiratua egin diogu.

Bi urte egin dituzu Pausokan, azkena lehendakari lanean. Gustura ibili zara?

Oso gustura. Guraso batzordean egoteak normalean jakiten ez diren gauzak jakiten eta egiten diren ekimenak gehiago baloratzen laguntzen du. Garrantzitsua da gurasoentzako eskolarekin harreman zuzena izatea. Parean suertatu diren gauzak baloratzeaz gain, aurretik egin direnak eta ondoren etorriko direnak ere baloratzen dira.

Haurtzaindegia jartzeko proiektuan lanean aritu zarete.

0-3 urteko zikloaren inguruan asko hitz egin da azken bi urte



E.I.

hauetan. Badirudi datorren ikasturterako jarriko dugula. Oraingoz, prozesu bat dago, lehen tasun batzuk daude. Antzuolako eskolari, berez, datorren ikasturtean tokatzen zitzaion horretan lane-

an hastea. Baina bai Udala eta bai eskola eta gurasoak tematu egin ginen eta tokatzen zitzaiguna baino lehenago deitu ziguten. Aurre-proiektua aurkeztu genuen, eta orain erantzunaren zain gaude.

Hori onartzen bada proiektu ofiziala aurkeztuko da eta Udalaren esku geratuko da aurrera ateratzea. Eskolan ez dago espazio nahikorik, eta beste eraikin bat egingo da patioaren atzealdean. **Eskolako jangelak urtebete darama jardunean. Ondo dabil?**

Zerbitzu oso garrantzitsua da gurasoentzako, batez ere lanean ari garenontzako. Abantaila asko ekar ditzake, baina eztabaida handia ere egon da, umeek ordu asko ematen dituzte eta eskolan. Hasieran, legalki, monitore bakarra tokatzen zen jangelarako, baina bigarren baten beharra ikusi genuen eta hala egin zen. Oraindik gauza asko daude hobetzeko; adibidez, talde bat jangela apaintzen ari da, goxotasuna emateko. Adi egon behar da, jarraipena egin, gauzak hobetzen joateko. **Batzarrean zer erabakiko duzue?**

Egin denaren deskargua egingo dugu eta aurrera begira dau den erronkak ikusi. Urtero beazala, batzorde erdi aldatuko dugu.

ERAKUSKETA

Euskarazko materiala ezagutzeko aukera

E.I.

Gero eta euskarazko jostailu eta material gehiago dago merkatuan. Hala ere, sarri, ez da erraza izaten horiek aurkitzea, gaztelaniazkoa askoz ugariagoa da eta. Material hori ikusgai jarriko du Udalak asteburu honetan, antzuolarrei hori ezagutzeko aukera emateko. Erakusketa Olanen izango da eta zapatu eta domekan 17:00etatik 20:00etara egongo da zabalik.

Umeentzako jostailuez eta CD-ROMez gain, nagusientzako euskarazko baliabideak ere izango dira Olanen, besteak beste, agendak, egutegiak, inprimakiak, postalak eta mapak. Material hau ikusteko bakarrak egongo da erakusketan, ezingo da erosi. Baina, nahi izanez gero, non lor daitekeen azalduko dute.

Martitzenean euskarazko materialaren erabileraren inguruko hitzaldia egotekoa zen, baina bertan behera geratu da.

KIROLA

Antonio Merino, Bilboko herri krosetan garaile

Antonio Merino antzuolarrak Asier Zarragari eskua emanda gurutzatu zuen Bilboko herri krosetako helmuga aurreko domekan. Eurak izan ziren lasterketako bizkorrenak eta lehen postua lortu zuten. Hogeita hamar minutu eta hogeita hamalau segundo behar izan zituen Antonio Merinok lasterketako hamar kilometroak egiteko.

Guztira 10.107 lagunek hartu zuten parte Bilboko herri krosaren hamaseigarren edizioan, inoiz baino gehiagok.

PARTIDUAK

FUTBOLA

Azaroak 22
12:00: Antzuola-Lazkao (gazteak)
15:30: Antz.-Aurrera Ondarroa (2.erre.)

PILOTA

Azaroak 21 (Gipuzkoako txapelke.)
20:00: Olalde-Urrietako2 (paletaz na.)
Olalde-Elordi herrigin. (esk.kad.)

EMAITZAK

FUTBOLA

Antzuola 4 Urki 0 (2. erreg.)
Urki 2 Antzuola 1 (gazteak)
Antzuola 0 Zarautz 3 (neskak)

PILOTA

Gipuzkoako txapelketa
Eibar-Olalde (eskuz inf.) 18-4
Olalde-Andazte2 (eskuz nag.) 22-16
Real Sociedad-Olalde (pale. nag.)20-35

IRAKURLIAREN TXOKUA

ANTZUOLAKO HERRITARREI

Idatzi honen bitartez azken gertakarien inguruko azalpenak eman nahi dizkizue Antzuolako Gazte Asanbladak herritarroi.

Jakina denez, martxo inguruan A.G.A-ri lokal bat edukitzeko aukera aurkeztu zitzaion. Surpe eta zapata dandaren artean azken hau aukeratu zen. Ilusio handiz ekin genion lokala berriztatzeari (lan hauek Udalaren inongo laguntzarik gabe egin ziren). Hainbat aste lanean eman ondoren, Udalak lokalaren gestiorako proposamen bat aurkeztu zuen. Honetan A.G.A-ren ekintzak Udalak gestioatzea planteatzen zen, ekintza guztiek Udalaren onespina izan behar diren truke. Hala, gure helburu nagusiak, autogestioa eta erabakitze ahalmena murriztuak suertatuko lirateke. Udalak jarrera aldatzeko inongo asmorik ez zuela ikusirik, lokala jartzeko erabaki mingarria hartu zen.

Duela gutxi A.G.A Udalarekin harremanetan jarri zen. Jaso genuen erantzuna lotsagarria izan zen. Udalaren ustetan 18 urtetik gorako gazteek tabernetan aurki dezakete beren arazoaren irtenbidea, gainera, autoak omen dauzkate herritik kanpora joateko. Beraz, gure herritik irteera da irtenbidea, Antzuolako herritarrek ez bagina bezala.

Egoera honen aurrean, hilaren 8an "Antzuolako" gazteok batzarra egin genuen, hemendik aurrera hartuko dugun jarrera nehaizteko. Argi ikusi zen autogestionaturiko gazteak beharrezkoa dela. Hau lortzeko ahalegin guztiak egingo ditu A.G.A-k.

Bestalde, Antzuolako herri-mailako ekintzak bultzatu eta laguntzeko asmoa dugu.

A.G.A

LEKV-BERRI MERENDEROA

Janariak eta edariak

Tf. 943 76 60 94
ANTZUOLA

MUJIKA HARATEGIA

Berezitasunak:
Etxean hazitako zekorrek eta oilaskoakKalebarren, 1.
ANTZUOLA
Tf. 943 76 64 34

AITZ-GARBI



taberna jatetxea

Pintxoak eta kazuelatxoak.
Bazkariak eta afariakKalebarren 15. Tf. 943 78 70 51
ANTZUOLA

EGAÑA

Era guztietako arotz lanak

Tarima eta parketa jartzea
Zoruen kutxilatua eta barnizatuak

Kalegoi 21. ANTZUOLA Tel.: 943 76 64 23

Goibekokale

ELGETA / Barikua / 2003eko azaroaren 21a / 163. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Irati Agirreazaldegia • Barrenkalea 33 20570 BERGARA • Tel.: 943 76 92 71 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta elektronikoa: goibekokale@goiena.com • Lege gordailua: SS475/95

Datorren urtetik aurrera Ur Partzuergoak egingo du ur zerbitzuaren kudeaketa osoa

IRATI AGIRREAZALDEGI

Joan zen astelehenean, hilaren 17an, osoko bilkura egin zuen udalbatzak. Bertan, beste zenbait gairen artean, Gipuzkoako Ur Partzuergoak uraren ziklo osoaren kudeaketa egiteko Udalarekin sinatutako akordioa izan zuten hizketagai.

Joan zen asteleheneko Osoko Bilkuran, ur zerbitzuaren kudeaketa osoa Ur Partzuergoaren eskutik uztea erabaki zuten Udal ordezkariak. Iazko urrian Ur Partzuergoak hartu zituen ura kudeaketa Udalari dakartzkion zenbait lan eta gastu, baina hementik aurrera zerbitzu osoa arduratzeko akordioa sinatu du Udalarekin.

Ura herriko etxebizitza guztietara eramatea, kaleetan zehar doan uraren sarea egoki edukitzea eta konponketak egitea izan dira orain artean Partzuergoaren zereginak. Baita matxuren kasuan 24 orduko zerbitzua eskaintzea, ur kontagailuen irakurketa eta honekin lotutako lan administratiboa egitea ere. Aurrerantzean, ur zerbitzuarekin lotu-



Gipuzkoako Ur Partzuergoak eta Udalak egindako akordioak 10 urte iraungo du.

tako ardura guztiak bere gain hartuko ditu Ur Partzuergoak.

Ur Partzuergoak eta Elgetako Udalak egindako akordioa 2004ko urtarrilaren 1ean ipiniko dute

abian eta 10 urte iraungo du. Behin epe hori beteta, Elgetako Udalak berak erabakiko du zerbitzu berarekin segitu edo aldatzeko egin.

ORDAINKETA

Zerbitzu osoa Gipuzkoako Ur Partzuergoak kudeatzean, hark ipiniko ditu prezioak, baina oraingoz, erabiltzaileek ordaindu beha-

Erabiltzaileek ur zerbitzuengatik ordaindu beharreko tasak oraingoz ez dira igoko

rreko tasek ez dute igoera nabarmenik izango. Urterokoaren antzekoa izango da gorakada Udalaren arabera, baina baliteke aurrerantzean aldatzeko izatea. Ur Partzuergoak kudeaketa guztia hartzea Udalaren onerako izango dela ere esan digute, arduragutxiago izateaz gain, zerbitzua hobetuko delakoan baitaude.

KOLEKTOREA

Bestalde, Udaleko Kolektoreetako Isurketak arautzen dituen araudiaz ere jardun zuten bileran, eta araudi hori onartzea adostu zuten.

Orain arte ez da izan herrian ur isurketak arautzeko araudirik. Beraz, honen bidez, ur zikinak hodieta nola bideratu, estoldak zela antolatuta..., zehaztuko dute.

KULTURA

Oihulari Klown-en ipuin kontaketa saioa

Udaleko Kultura batzordeak bi ipuin kontaketa saio antolatu ditu haurren eta gaztetxoaren artean irakurzaletasuna bultzatzeko asmoz. Lehenengo emanaldian Joxemari Carrerek ipuin tradizionalan oinarritutako saioa eskaini ostean, oraingoa Oihulari Klown taldekoen txanda izango da.


Bi saio emango dituzte martitzenean, hilaren 25ean, liburutegian. Eguerdiko 14:00etan hasiko dira ipuin kontalariak, beraz, eskola umeendako izango dira bi

ekitaldiok. Lehenengoa 3 urtetik hasi eta 8 urtera bitartekoendako eta gainontzekoendako bestea.

'SUAREN OPARIAK'

Oihulari Klown taldeko Beak eta Joanek hainbat ipuin kontaketa dizkiete bertaratutakoek. Suaren opariak izenburupean prestatutako saioan.

Kandela bat piztuz hasiko dituzte emanaldiak eta suarekin dakartzen ipuinak emango dizkiete opari kontalarien inguruan elkartutako umei.



Suaren opariak izenburupean ipuinak kontaketa dizkiete umei.

LABUR

Herri Eskolakoak Antzuolako Lapatza baserrira bisitan

Herri Eskolakoek ortua ipini eta lantzen dihardutela esan genizuen lehen. Jadanik zenbait barazki landatu badituzte ere, orain erabaki bat hartzeko ordua heldu zaie: nekazaritza modu ekologikoan egitea edo bestela ongarri artifizialak erabiltzea. Antzuolako Lapatza baserrian nekazaritza ekologikoa egiten dutela jakinda, bertara bisitan datorren martitzenean, nola lan egiten duten ikusteko.

HILERRIA

Kanposantuan lurperatze gehiago egin ahal izateko ekialdeko zatia egokituko dute

SENIDEEI ABISUA

Senideei hori jakinarazteko gutun bat bidali zieten Udaletik, eta azaroaren 14ra arteko epea izan zen gurutzeak, hilarriak, argazkiak zein hezurak jaso nahi zituenak horren berri udaletxean emateko. Baina lanak oraindik hasteke daudenez, horretarako garaiz dabiltzala esan nahi dute.

Garbiketa eta lurren egokitzapena egin ahala emango dizkiete senideei bakoitzaren hilotatik kendutakoak. Hezurak beste nonbaitera eraman edo erre nahi dituztenek, ordea, bertan izango dituzte toki hori behar izan eta bertatik erretiratzen dituzten artean.

Lanak aurki hasiko dituztenez interesatuek lehenbailehen jo behar dute udaletxera.



Hilerriko ekialdeko hormaren eta pasabidearen arteko lursaila egokituko dute.

Hilerrian lurperatze gehiago egiteko leku gabe geratzen dihardute Elgetan. Hori dela eta, egokitzapen lanak egiteko esmoa azaldu du Udalak. Horretarako, ordea, orain lurperatuta daudenen senitariekoei jakinarazi diete lanean hasi aurretik.

Kanposantuan hilobiratze gehiago egiteko egokituko duten lekua ekialdeko hormaren eta pasabidearen arteko lursaila da. Izan ere, hiru edo lau toki baino ez dira geratzen orain. Lanak noiz egingo dituzten zehaztu ez badute ere, aurki hastekotan dira, baina horretarako aurrez bertan dauden gurutzeak zein hilarriak kendu behar dituzte.

HEZKUNTZA

Jostailuen gaineko ikastaroak eta hitzaldia



Eskolako umeez jolasak egiten dihardute, materiala birziklatuta.

Gabon jaietan jostailuen inguruan sortzen den kontsumismoa dela-eta, Udalak, Herri Eskolaren laguntzaz, jostailuei buruzko bi ikastaro eta hitzaldi bat antolatu ditu herritarrentzako. Pili Arin arduratuko da elgetarrei gaiari buruzko azalpenak emateaz.

Gabon jaien bueltan kontsumismo handia izaten da, besteak beste, jostailuen inguruan. Hori ikusita, jendeak erosketak kontzienteki egin ditzan, gurasoak eta umeeak hezitzeko jostailuen gaineko bi ikastaro eta hitzaldi bat antolatu dituzte datorren astean hasi eta Gabonen osterara arte.

Pili Arin arduratuko da ikastaroez eta hitzaldiaz, eta planifikatza hiru zatitan banatu dute: lehenik, azaroaren 26an eta 27an arratsaldeko 14:00etatik 16:00etara jostailuak egiteko tailerra izan

go da. Materiala birziklatuz jostailuak asmatzen erakutsiko diete bertaratzen direnei, jolasen alderdi didaktikoa landuta.

HITZALDIA

Abenduaren 16an, berriz, jostailuei buruzko hitzaldia egongo da Pili Arinen beraren eskutik.

Gabonen ostean, berriz, urtarilaren 14an, hain zuzen ere, jostailuak konpontzen ikasteko beste ikastaro bat egingo dute. 16:30ean hasiko da ikastaroa.

Etxean edo ganbaran gordeta eta erabili ezinda dituzten jostailu zaharrak eraman ahal izango dituzte tailer honetara eta irakasleak hauek konpontzeko truku txikiak erakutsiko dizkie, ondoren, berriz, berauekin jolatu ahal izateko.

Antolatzaileek esan digutenez, jostailuen inguruan antolatu dituzten ekintza hauetan interesa duen edozein herritarrek har dezake parte, ez haur eta gurasoek bakarrik. Izan ere, beraien helburua, jostailuak egiten eta konpontzen erakustez gain, umeez eta gurasoek zein beste senideek elkarrekin jolastuz harremanak sendotzea da.

Honela, bada, jolastez gain, jostailuei buruzko gauzak ikasi nahi dituztenek zabalik dute atea.

LABUR

Euskararen historia ikusgai gaztetxean

Bihar, zapatua, azaroak 22, erakusketa izango da gaztetxean, arratsaldeko 17:00etatik 21:00etara. Euskararen historiari buruzko erakusketa xume moduan aurkeztu dute gaztetxeak erakusketa hau, eta, besteak beste, azken mendeotako euskararen bilakaren eta etorkizunari begira egin beharrekoei edo dauden asmoen berri emango dute, zenbait testu eta irudiren bidez. Interesatuek gogoratu behar dute bihar baino ez dela.

Alkatearen eta zinegotzien soldatak zehaztuta

Udal ordezkariak aldatu arren, soldata lehengoek jasotzen zutenaren parekoa da. Zinegotziek 103,04 euro jasoko dituzte batzordeko eta batzordeburuek, berriz, 206,08 euro. Talde politiko bakoitzak hilean 41,22 euroko diru saria izango du. Osoko bilkuran hartu zuten soldatei eusteko erabakia, baina Aralarko zinegotziek gehiegizkotzat jo dute alkatearen soldata, hileko 1.364 eurokoa.

PILOTA TXAPELKETA

PARTIDUAK

AZAROAK 23, DOMEKIA

10:30: M. Larrea/M. Arkarazo-
E. Zubiaurre/J.M. Zubiaurre

ondoren, A. Morales/F. Zenitagoia-
I. Ugarteburu/Antton

gero, M. Arantzeta/J.M. Arantzeta-
Arrota/Epi

Ondoren, J.R. Irzabal/I. Izagirre-
Sesia/Satur

gero, A. Arantzabal/A. Telleria-
Otxoa/M. Elkoro

ondoren, Txapel/Koldo-
I. Gorostiza/F. Olaortua

SAIOA ARANZABAL MASAJEAK

ELGETAN, DOMINGO ITURBE 10ean

- Kiromasajea
- Reflexologia
- Hidromasajea
- Kirol masajea



- Solariuma
- Drenaje linfatikoa
- Algekin eginiko estalkia

Dei ezazu 646 50 00 29 telefonora ordua eskatzeko

Aperribay, s.l.

Marmoldegi eta granitoak

Pagatza indus. z/g.
Tel. eta faxa: 943 78 90 21

20690 ELGETA

BOLATOKI

Eguneko menua

Asteburuan menu bereziak

Plater Konbinatuak, ogitartekoak eta kazuelatxoak

Karta eta babarrun-jana enkarguz

Artekale 2, ELGETA. 943 76 82 84

ERRETRATUZAHARRA

BERGARA

Txapelketak Aitonak elkartean, 1975

Joan zen azaroaren 7an *Evolución del hogar del jubilado en el contexto social de Bergara. 1972-2002* liburua aurkeztu zuten udaletxeko osoko bilkuren aretoan. Xabier Ibartzabalek idaztitako liburuan Bergarako erretiratuen elkarteak azken 30 urteotan izan duen ibilbidea jasotzen da. Liburua bost eurotan jarri dute salgai.

Testuarekin batera hainbat argazki dakartza liburuak, eskumakoa tartean. Erretratuan agertzen direnak 1975ean Aitonak elkartean izandako mahai-jokoetako irabazleak dituzue:

Zutik: Gregorio Urbina, Jose Umerez, Jose Maria Markina, Elpidio Torres, Modesto Larrañaga, Hilario Urkizu, Jose Larrañaga eta Eugenio Agirre.

Jarrita: Petra Lonbide, Margarita Elortza, Tomas Sebal, ezezaguna, Isabel Untzurruntzaga eta Jose Maria Gallastegi.

Argazkia: San Joxepe elkarte.



ADI, IRAKURLE!

Zure erretratu zaharra argitaratzea nahi izanez gero, zatorz BERRIGARAra (Irizar jauregia, Barrenkalea 33) edo Elgetako kultura etxera. Zain gaituzu!

NOLAALDATUDIRENGAUZAK

BERGARA


Kartzela zaharra

Kartzela Zaharra XIX. mendearen erdialdeko eraikina da eta, batez ere, Michele Angiolillo anarkista bertan exekutatu zutelako da ezaguna. Canovas del Castillo gobernuburua hiltzeagatik 1897ko abuztuaren 20an exekutatu zuten Angiolillo.

Bi urte pasatxo dela gaztetxea kokatu zuten kartzelan. Lokala egokitzeko hainbat berritze lan egin zituzten, tartean arrapala jarri.



≈ 1994 1990eko hamarkadaren hasieran berritu zuten kartzela, eta hainbat urtez Jardunek erabili izan du. Gaur egun gaztetxea dago han.



2003 Bi urte pasatxo dira gaztetxea kartzelan jarri zutela. Hainbat berritze lan egin zituzten; tartean, argazkian ikusten den arrapala jarri zuten.

Etixerako ederrena, Zanguitun

ZANGUITU margoak

Irala z/g. BERGARA.
Tel.: 943 76 19 54.

IRU margoak

Araba etorbidea 3. ARRASATE.
Tel.: 943 79 11 71.

Parket flotatzailea
Sintasola
Moketak
Paper pintatuak

deco-tex ZANGUITU alfonbrak

Herri lagunak 4. BERGARA.
Tel.: 943 76 08 69.

Alfonbrak
Alfonbrak neurrira
Funda nordikoak
Edredoiak
Kortinak Toailak Izarak



INMUEBLE ETA FINANTZA AGENTZIA

Bergara / Arrasate / Elgoibar
Telefono Aranzadi 2 behea
943 76 21 80 / 943 76 06 37

ETXAGI JATETXEA

AFARIAK, BATAIOAK,
JAUNARTZEAK,
EGUNEROKO MENUA,
GOSARIAK,
BAZKARIAK...

Masterreka, 8
BERGARA
943 76 53 12

disdira

ile apaindegia
edertze gela

Masterreka 7
BERGARA
943 76 00 55

MULTIOPZIOAK

Eguzkitako
betaurrekoak

eguzkitako betaurrekoak
graduatzeko ditugu

50€
-tik
aurrera

Betaurreko
progresiboak
erosteagatik
eguzkitako
betaurrekoak
OPARI

Hirugarren
Munduarekin
solidario

Erabilitako
betaurrekoak
ekarriz gero,

26€-ko
aurrezkia

betaurreko
berriak erostean

Ibargarai 16 • BERGARA • ☎ 943 76 15 75



Bizi-lur
REGARDENDA
PRODUKTU NATURALA

Zabaldu berria!

Kruz Gallastegi 7 Tel. 943 76 46 01

Gure Zerbitzuak:

Mireia Alberdi
dietista eta nutrizionista

- Gorputzeko koipe portzentajearen neurraketa eta pisuaren kontrola.
- Banakako tratamendua
- Jarraipen pertsonalizatua

Jesus Huarte
mediku naturista
Elkargokide zkia.: 3.840

Diagnostikoa:

- Iridologia (Irisaren ikerketa)
- Laserpuntura



Indartsuago.

Mundu-mailan estandar berri bat sortu da Espres-zerbitzuei, merkantzien garraioari eta logistikari dagokienez.

Guipuzcoana Euro Express, paketeen alorrean Europako buru dena, DHL Worldwide Express, aireko garraio espresetan munduko buru dena eta Danzas, aireko eta itsasoko zamen alorrean munduko buru dena DHL markapean bildu dira are hobe den osoko zerbitzua eskaintzeko. Orain, eskaintza, zerbitzu eta aukera gehiago jartzen ditugu zure eskura munduko 220 herrialde baino gehiagotan. Zure beharrak edozein direla ere, horiei erantzuna emateko prest gaude. Jar zaitez gurekin harremanetan eta DHLren indar osoa izango duzu zure negozioaren zerbitzura.

DHL Express Bergara
San Juan Erreka 33
20570 - Bergara
Tel.: 943 763 642
Faxa: 943 765 425

MUNDUA MUGITZEN DUGU 